

uk

137. zenbakia / 2008 maiatzak 8



Euskaraz egiten badiguzu,
geuk ere euskara gehiago
egingo dugu

Nuestro compromiso:
atenderte en euskera

Euskararen Erabilera
Plana (2008-2011)

Plan de Uso del Euskera
(2008-2011)



Euskara Zerbitzua
Irailaren 23a plaza
48950 ERANDIO
Tel. 94 433 01 28
euskara@erandio-udala.net



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Zepoa Leioan, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako Tangora etxea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jagoba Agirre.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. *Un poco de chocolate* pelikularen estreinaldia.
28. ARGAZKIA. Galeako gotorlekua.
30. BERBETAN. Lontzo Zugazaga, Zuberoa Iturburu.
34. FOTOGRAFIA. Migrazioak, Sergio Caro.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Fant 2008.
43. MUSIKA. Mikel Markezzen azken bilduma. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Kirmen Uribe. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Kirol topaketak Getxon.
46. ELKARRIZKETA. Gentzane Agirre.

AMAITZEKO

49. NON JAN. Erandioko La roca del fraile.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Erandioko udal gestora, 1983. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Javier Corcuera, Jokin Aspuru.

Azaleko argazkia: Sergio Caro



30 Lontzo Zugazaga

Berbetan

Getxoko Andra Mari elizako abadea, teologia irakaslea ere bada Deustun gamiztar bertsozale hau.



46 Gentzane Agirre



14 Jon Ursua



11 Jagoba Agirre



34 Sergio Caroren argazkiak



54 Javier Corcuera

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kuba 171
Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentakia
TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurola, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Esku urratua

Zenbaki honetako fotografia atalean Sergio Caro argazkilari ospetsu eta konprometituaren migrazioari buruzko irudiak topatuko dituzue, Marokon, Saharan eta Melillako hesiaren inguruan atera zituenak. Gurera bizitza hobe baten bila datozen lagunen erromesaldi beldurgarria ikusiko dituzue horietan. Aldizkari honen azaleko argazkia hain zuzen ere, Melillako hesia zeharkatzen ahalegindu zen lagun baten esku urratua erakusten du, murre hori inguratzen duen alanbre-hesiak eragindakoa. Irudi mingarria da eta azalean beste bat ipintzekotan egon ginen, baina horixe argitaratzea adostu genuen, drama honen laztasuna ezin hobeto adierazten du eta. Hondamendiak, ezbeharrak eta zorigaitza eguneroko ogi bihurtu zaizkigu, egunero betetzen dituzte komunikabideen azalak. Eta horrenbestetan ikusten ditugunez honezkero ez gaituzte hunkitzen. Guk, eskatzen dizuegun gauza bakarra, irudiak arretaz begiratzea da, minutu gutxi batzuz bada ere “beste” horien azalean ipintzea.

UK-ko lantaldea

jaso dugu > argazki baten gaineko azalpenak



UKren 134. zenbakian goiko irudi hau argitaratu genuen, Arrigunaga hondartzaren gainean zegoen gaztelua erakusten duena. Jose Antonio Gaminde Alix irakurleak irudiari buruzko datu argigarriak bidali dizkigu. Eraikina Pedro Guimon Egiguren arkitektoak egin zuen. Sortzaile honen beste lan batzuk dira, esaterako, Algortako trinitarioak edota Bilboko Atxuriko tren geltokia. Arrigunagako etxe hartan bizi izan zen Guimon jauna Frantziako exiliora alde egin behar izan zuen arte.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



LEICA: 2008KO APRILAREN 25A

Zepoa / “Nire modukoak aurretik pasatzen dira, hasieran jakin-minez begiratzen ninduten, orain ohitu egin dira... Lagunak ere ikusi ditut nire albotik igarotzen baina inork ez nau klaxonagaz alaiki agurtzen... Nire bizitzaren gidariak bazterrean utzi ninduenetik denek ahaztu naute. Ez naiz inoiz kexatu izarren, leian edota euriaren azpian lo egin behar izan dudanetan, egariz hiltzeko zorian egon naizenean, minez erdi errenka ibili naizenean. Garai batean zelan harrotzen zen nire gidaria neuzat! Orain denek ahaztu naute, okerrago, gainera giltzapean naukate... Nire barne ahotsak azken kanta abesten du: *Ez dira betiko gauri onenak...*”  / Argazkia: **Asier Mentakia**

MAIATZAK 15, 16, 17, 18

GETXOKO SAN ISIDRO JAIAK 08



15, EGUENA 15.00: San Isidro eguneko Meza
Luntxa eta surruakua kooperatibaren eskutik.
17.00: Idiprobek Getxoko probalekuan
17.30: Haur animazioa Molekaten plazaan
19.00: Kalejira txistulari buruzkoak eta hankapauskin Molekaten elizarraino
19.30: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
20.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
20.30: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
21.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari

16, BARIKUA
18.00: Aerobic meratoia Molekaten
19.00: Mus txapelketa polikidegion
20.00: Haur zinea Molekaten
21.00: KONZERTUAK elizan
Patada en la Pareda
Early Reflections
EH SUKARRA

17, ZAPATUA
Egun osoan zehar Grefitiak
11.00: Puzgarriak Molekaten
12.00: Sokatira txapelketa polikidegion
13.00: Trikipotea Molekaten elizarraino
14.00: HERRI BAZKARIA polikidegion
15.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
16.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
17.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
18.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
19.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari
20.00: Bertsopregalea Geroa eta Andramari

18, DOMEKA
13.00: Txakur txapelketa elizan
14.00: Txakur txapelketa elizan
15.00: Txakur txapelketa elizan
16.00: Txakur txapelketa elizan
17.00: Txakur txapelketa elizan
18.00: Txakur txapelketa elizan
19.00: Txakur txapelketa elizan
20.00: Txakur txapelketa elizan



[lehen]

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



[orain]

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO TANGORA ETXEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > oasia



Algorta, 2007ko martxoa

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Berezia, Xabier Amurizarena

Lau hormaz sortu ninduten txiki eta argala, baina handitu ahala ingururatu zitzaidan baratx zabal-zabala. Gainean ipini arren latorrizko azala, ez al naiz kolosala? Txakurra ere badaukat Guggenheimak bezala.

Astean bitan ez bada sikiera igandero etortzen da Alfredo; baratza zaintzera sarri etorri ohi da gero! Eta are sarriago etorri ohi da, bero, lan egitera-edo, Kontxi emaztearekin haserretu ezkeru.

Nola ote da posible txabola bat hirian? Eraikin bat mendian? Zer ote naiz? Fabela naiz? Ez dago agerian... Ni ez naiz txabola soil bat auzoko belardian! Oasi bat... agian, zementuzko basamortu handi baten erdian.



BASALBO BASERRIA
JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

euskara > euskararen jatorriaren III. biltzarra egingo da maiatzean



Oka-Iruñako aztarnategia

Oka-Iruña udalerriko Langraitz herrian (Araba) egingo da maiatzaren 17an Euskararen Jatorriaren III. Biltzarra. Udalerri honetan aurkitutako idazkiek euskararen jatorriaren azterketan izan duten garrantzia aztertzeaz gain, euskara sortzeko gure arabasoen erabili zituzten erroei eta euskaldunen migrazioek Europa osora zabaldutako protoeuskarari buruz berba egingo da biltzarrean. Honez gain, Oka-Iruñako indusketen balioaz arituko da Patxi Alaña, orain arte hedabideetan agertutako infomazioa oinarri hartuta. Euskararen zazpi erroei buruzko mahaingurua ere egingo da. Biltzarra goizeko 10etan hasiko da eta gaueko 9ak arte luzatzea espero dute, gauerako afari-kolokioa antolatu dute. Biltzarrean parte hartu nahi dutenek aldeztatik 45 euro ordaindu beharko dituzte. ○

Izena emateko: 94 600 41 01

komunikabideak > euskarazko Ibaizabal TB abian interneten



Hasieran, internet bidez baino ez dute emitituko

Joan den hilaren hasieran aurkeztu zuten Bilboko Kafe Antzokian informazioa eta aisialdia euskara hutsez jasotzeko helburua duen Ibaizabal Internet bidezko telebista. Bilbo, Ezkerraldea, Enkarterriak, Uribe Kosta, Txorierri, Mungialdea eta Hego Uribeko zonalde zabal baterako emitituko duen euskara hutsezko telebista sustatu nahi dute sortu berri den Ibaizabal-Mendebalde elkarteak lagunek, Hamaika Telebista Hedatzeko taldearekin elkarlanean. Dena den, baliabide falta dela eta, momentuz, Bilbo hiria ez den guztia alde batera utzi dute, Getxon, Bilbon, Barakaldon eta Mungian emititzeko lizentziak lortu badituzte ere. Honez gain, hasieran, internet bidez emititzea erabaki dute, kostuak murrizteko. ○

www.ibaizabaltb.com

saiaz getaria
HOTELA



Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



...haria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

gorliz > erdi aroko herri batenak dira udaletxe ondoko elizako aztarnak



Indusketa lanak Gorlizen

Erdi Aroko herrixka batenak dira Gorlizko eliza inguruan 2006ko urrian atzeman zituzten aztarnak. Urte eta erdiz ikertzen ibili eta gero, Bizkaia mailan oso interesgarria den aurkikuntza egin dute arkeologoek. Hala ere, oraindik hilabete batzuk iraungo duen azterketa behar izango dute aurkikuntzaren garrantzia noraino heltzen den jakiteko. Erdi Aroko zenbait etxeren estrukturak eta zeramika ontziak aurkitu dituzte kanpoaldean. Honez gain, nekropolia inguratzen zuten harresiaren eta jatorrizko tenpluaren zatiak izan litezkeenak ere atzeman dituzte. Hiru garai ezberdinei dagozkien 200 gizon-emakumeren giza aztarnak daude elizan. Honekin batera, bi galdaketa laberen estrukturak aurkitu dituzte, XVI. mendekoa bata eta lehenagokoa bestea. Aurkikuntza Gasteizko katedralean egindakoarekin konpara daiteke, nahiz eta datu asko zehazteko dauden oraindik. Datozen hiletan zehaztasun gehiago emango dituzte. ○

erromo > III. koadrila egunean ehunka lagun bildu ziren



Santa Eugenia enparantzan egin zuten indaba jana eta ondorengo jolasak

Apirilaren 19an Koadrila Eguna ospatu zuten Erromon, hirugarrenez. Jai Batzordeak antolatu zuen, koadrilek lagunduta. Orain arte udalak trabak jarri baditu ere, aurten babesa eskaini die; diru laguntzarik ez die eman, hala ere. Goizean umeentzako jolasak eta poteoa egin zuten. Herri bazkarian 250 lagun elkartu ziren indabak jateko, Santa Eugenia plazan. Ondoren etorri ziren jolasak. Hura bai giroa! Koloreetako zapiek banatzen zituzten taldeak, koadrilak nahastuz sortu zituztenak. Nork irabazi zuen, ordea, ez dakigu norbaitek jakin zuen, ordurako giroa bero-bero baitzegoen. Bigarren poteoari ekiteko une aproposa, beraz. Gaztetxean bukatu zuten jaia goizaldeko ordu txikietan eta antolatzaileak oso pozik daude emaitzarekin. ○



“Alkatea izango banintz, Erromo Getxoko gainontzeko auzoetatik bananduko nuke”

Jagoba Agirre > Erromoko “alkatea”

Jaieitor, alkate... saltsa guztietako perrexila delako jarri dizkiote ezizen horiek Jagoba Agirreri. Hamar urte joan dira jai batzordean hasi zenetik: *“Txosna batzordean nengoen hasieran, baina jendea falta zenez, jai batzordekoekin kolaboratzen hasi nintzen. Gero badakizu, hau egin, bestea egin... eta bat-batean leporaino sartuta zaude”*. Batzordeaz harro dago Jagoba, jaiak antolatzeaz gain beste hainbat ekimen jarri dituztelako martxan: *“Aurtengo aratusteeek, adibidez, arrakasta handia izan dute”*. Belaunaldi berriak erantzun ona eman eta lan egiteko prest dauden arren, zerbait falta zaiela uste du **Jaieitor** jaunak: *“Gatz barik dator play station eta lonjaren belaunaldi hau. Dena den, Erromo herri jatorra da eta jendea beste leku askotan baino gehiago animatzen da”*. Jaiak antolatzeaz gain, Itzurbaltzeta Gaztetxeko kidea da sorreratik: *“Batzordean dagoen arazo bera dugu hemen: gaur egungo gazteak gatzgabe datozela. Hala ere, oztopoak gainditu eta aurrera goaz. Ideia berriak aurrera eramateko leku askea da gaztetxea eta herritarron borroken alde lan polita egiten ari gara. 37 urte ditut, askok hemen ibiltzeko nagusia naizela pentsatuko dute, baina gustura nago nire jendearekin”*. Erromotar petoa denez gero, guaitoekin dagoen *pikea* mahaigaineratu digu: *“Alkatea izango banintz, Erromo Getxoko gainontzeko auzoetatik bananduko nuke”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Euskaraz ere jakinda, denontzat hobe

Euskal curriculumaren aurka; zentro denetan A, B eta D
ereduak jartzearen alde eta **B eta D** ereduaren aldeko kanpainaren
aurkako PPren mozioaren aurrean euskaldunak **ez dira ixilik lotu**

Apirilaren 24ko Getxoko Udalbatzan PP alderdiak aurkeztutako eta PSEk onetsitako mozioa aurrera atera zen, aipatutako bi alderdien aldeko botoakaz. Horrez gain, mozioaren kontra euskalgintzako hainbat elkarte eta herritarrek sinatutako “Eskolak euskaldundu behar du” eskaera aldarrikatzen duen idatzia ere irakurri zen.

Getroko PPK “2-3 urteko *haurrentzako irakaskuntza-eredua*” izeneko erdarazko mozioa aurkeztu zuen. Mozioan zera eskatzen zuten: EAEko gobernuak onartutako *Curriculum*aren aurka azaltzea; udalerriko hezkuntza zentro guztietan A, B eta D ereduak eskaintzea eta Alkarbidek eta Bizkaiko 45 toki erakundek (Uribe Kostako udal denak) egindako “*I+I=2*” informazio kanpainaren (B eta D ereduaren aldekoa) kontra agertzea. Eskaerari indarra emateko, Gasteizko A ereduaren aldeko PLELE elkartearen (Irakaskuntzan Hizkuntza Aukeratzeko Askatasunaren Aldeko Ekimena; *Plataforma por la Libertad de Eleccion Linguistica en la Enseñanza*) babesa jaso zuten. PSEren aldeko botoakaz, gutxira 14 botogaz, aurrera egin du mozioak.

Horri aurre eginez, Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen ekimenez, Getxoko euskalgintzako 435 herritarrek eta elkartek atxikikutako eskola euskalduntzeko beharra aldarrikatzen duen testua irakurri zen Udalbatzan. Getxoko Euskal Herrian Euskaraz taldeak idatziagaz bat egin du, baina gaineratzeko hainbat kontu dituztela-eta idazki propioa ere zabaldu dute.



Apirilaren 24ko Udalbatza

PSEko zinegotzi Luis Almansak idazkia aurrekoan jaso zuela adierazi eta “beldurgarritzat” jo zuen. Ostera, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren aurkako eraso honi buruz herri ekimenaren idatziak dioenez, *“zorritzarrez, hau ez da berria, kate historiko luze baten azken kapitulua besterik ez da. Erabilitako argumentuek, egia ez izateaz gain, trampa egiten dutela uste dugu”*. Testuak besteak beste, hau dio: *“bi argumentu nagusi*

«Zorritzarrez, hau ez da berria, kate historiko luze baten azken kapitulua baino ez da».

*enabili izan dituzte euskarazko irakaskuntza-
ren kontra egiteko: ama hizkuntzan ikasteko
eskubidea eta irakaskuntzaren hizkuntza
aukeratzeko eskubidea... Pertsona eta talde
horiek UNESCO bera aipatu izan dute “ikas-
ketak ama hizkuntzan egiteko eskubidea
defenditzeko, baina ez dute esan UNESCOk*

berak dokumentu horretan, esaldi horretan hau ere esaten duela: “leaniztasuna sustatzeko neurriak ahalik eta azkarren hartu behar dira eta pertsonen ama hizkuntza nazio bateko edo nazioartekoa izanda ere, pertsona horiek animatu behar ditugu euren herriko beste hizkuntzak ikasi eta erabiltzera...”. Amaitzeko, egoera konpontzeko 4 proposamen egin dituzte: Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalari... jarraituta, berau jakitea euskal herritar guztion eskubidea da; derrigorrezko hezkuntza bukatzean haur eta gazte guztiek euskaraz jakin behar dute; gaur egun euskalduntzen ez duten inakaskuntza ereduak gainditu behar ditugu eta euskaldunduak duen hezkuntza sistemaren alde egin; inakasle eta hezkuntzako langile guztiak euskaldunak izan behar dira, eskolaz kanpoko ekintzen euskarazko programak bultzatu eta eskolak euskal kultura eta historia ere transmititzea”. ○

Getxo 33 km.ko bidegorriz

zeharkatzeko aukera egongo ei da hemendik 3 urtera.

**Ibaiondo kaleko bidegorria**

Getxoko Udalak aurkeztu berri duen 2008-2011 Bidegorrien Plan Bereziaren aurrerape-nak aurreikusten duenez, 2011rako Getxon zehar txirrundulaz ibiltzeko 33km-ko bidea egongo da. Bizikleta aisialdirako bakarrik baino, eguneroko garraibide bihur dadin gura du Udalak, horretarako 21 ikastetxe, 7 kirolgu-ne, 6 metro geltoki eta herriko plazak lotuko dituen bidegorri-sarea sortzeko asmoa du. Halere, bidegorriak herriko auzoen hirigunean sartuko ei direnez, Udalak ez du uste bizikle-tentzako bideak bakarrik izango direnak jar di-tzakeenik, hau da, bide bikoitzak izango dira gune horietan, bizikletek oinezkoakaz edota kotxeakaz banatu beharko dituzte.

Bidegorri-sarearen 33 km-etako batzuk dagoeneko erabilgarri daude, beste 16 km Udalak eraiki beharko ditu eta beste 4,2 km-ak Aldundiak. Horrez gainera, Getxoko Udala

Leioako Udalagaz harremanetan ipiniko da Erromo eta Leioa batuko dituen bidegorriaren gainean jarduteko eta Aldundiagaz ere egingo du, kostaldeko bidegorria haien ardura delako.

Plan aurrerapenak aurreikusitako zeharkaldiaren zati bateko lanak hurrengo hilabetetan hasiko dira (esaterako: Errekagane parkeko egitasmoaren barrukoak edota Luis Lopez Osas kalekoa). Udalak 2008rako 300.000 euroko partida aurreikusi du egitasmoa gauzatzeko, hori bai, planak aurrerapen izateari uzten dienerako eta proiektu egonkor bihurtzen denerako. Bestalde, Udalak herritarrek ere egitasmoan parte hartzea gura du eta horretarako, Planaren aurrerapena ikastetxe, txirindularitza elkarte, Herritarren Arretarako Bulegoan zein Gazte Bulegoan jarri du kontsulta dezaten; egin gura dituzten iradokizunak mezu elektronikoz edo idatziz bidal daitezke udaletxera. ○

ZABORREN BILKETA PNEUMATIKOA IPINTZEA AZTERTUKO DU UDALAK

Zaborrak batzeko modu berri bat aztertzen dabil Getxoko Udala, hau da, zaborren bilketa pneumatikoa ipintzeko bideragarritasuna eztabaidatzen dihardu. Ohiko zabor bilketari irtenbide alternatiboak bilatzeko aukeren artean dago bilketa-pneumatikoaren sistema, apurka-apurka eta zonaldez zonalde egingo zena ipintzea erabakiko balute. Sistema horren aldeko erabakia hartzeko Hirigintza eta Ingurumen arloei agindutako txosten teknikoan ondorioak jasotzeko zain daude udal arduradunak.

**DATOZEN BI URTETAN
HONDARTZAK GARBI
EGOTEKO 693.000 EURO**

Hurrengo bi urteetarako hondartzak garbitzeko zerbitzua kontratatu du dagoeneko Getxoko Udalak. CESPA enpresa arduratuko da udalerriko hondartzak garbitzeaz eta hala mantentzeaz eta horrek 693.000 euroko kostua izango du. Zenbatekoaren zati handi bat Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko dio Getxoko Udalari. Hondartzen garbiketa ez da bakarrik hondartza sasoian egiten, neguan eta uda aurreko garaian ere egin behar dute, beraz CESPA enpresak udalerriko hiru hondartzak urte osoan zehar mantendu beharko ditu garbi.

**ERROMOKO NAGUSIEN
ETXEAK EKITALDI UGARI
ANTOLATU DITU HIL
HONETARAKO**

Erromoko Nagusien Etxeak hamaika jarduera antolatu ditu hil honetarako bertako bazkideentzat, besteak beste: 15 eguneko egonaldia Benidormen (hilak 18-ekainak 1); Bidezko Merkataritzaren aldeko astea (hilak 12-15); zine emanaldia (hilak 12); birziklapen lantegia (hilak 14), sukaldaritza lantegia (hilak 15), Bidezko Merkataritzaren inguruko hitzaldia (hilak 15), ibilaldia Bakiotik zehar (hilak 13), Arte Eder Museora irteera etab.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

**LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak**

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



*moda gaztea
opariak*

Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Jon Ursua > *Dentistas en Africa* GKEko kidea

“Lehenengo urtean hondartzako aulkietan eta linternatxo bategaz atera genituen haginak!”



Jon Ursua eta lankide bat Mauritanian lanean. Informazio gehiago: www.dentistasenafrica.org

Jon Ursuak eta Maria Berrazuetak lau urte inguru daroate Mauritanian Atar herriko eta inguruko ume eta nagusiei hortz-osasun zerbitzua eskaintzen. Algortako dentistak adierazi legez, *Dentistas en Africa* gobernu kanpoko erakundea sortu zuten beste dentista batzuek batera, eta urtean bitan-edo Afrikako herrialde horretara joaten dira bertakoen hortzen osasuna zaintzen laguntzera.

—Zelan sortu zen egitasmoa?
—Ustekabeen sortu zen proiektua. Baze-
goen hara joaten ziren *La Ruta de Luz* deitu-
riko elkarte bat, oftalmologo eta Iberiako
pilotu talde batek sortua. Kontua da antola-
tutako azken bidaian oftalmologo barik lotu
zirela, mediku talde barik. Guk talde hartako
pilotu bat ezagutzen genuen eta berak
proposatu zigun gu joatea, egoera-eta eza-
gutzeko. Lehenengo aldi hartan, orain dela
lau urte inguru, esperimentatzaile legez joan
ginen, eta konturatu ginen baietz, zerbaite-
tan lagun genezakeela; oso oinarritzak izan
zen, ez genuen ia materialik eroan, ez geneu-
kan baliabiderik. Hondartzako aulkietan
jesarrita eta linternatxo bategaz bakarrik ate-
ra genituen haginak! Hurrengo bisitarako

azterketa-plan bat prestatu genuen, zer eroan
behar genuen-eta prestatuz. Hala, Maurita-
nian utzitako halamoduzko osasun zentro
bat ekipatzen ibili gara, eta Kantabriako
diputazioak “jubilat” zituen bi “osasun”
autobus eman zizkigun, barruan bi dentista
aulki-eta dituztenez, bada horiek ere egiten
dute euren zerbitzua eskola batetik bestera
gabiltzanean. Atarren eta inguruetan dihar-
dugu. Bi ekintza plan ditugu: bata, umeak
sensibilizatzeko ekimena da, hortzak garbi-
tzearen garrantzia uler dezaten-eta, horrega-
tik ingurutako eskola askotara hurbiltzen
gara eta hitzalditxoak ematen dizkiegu, hort-
zetako eskuilak oparitzen dizkiegu, haginak
zelan garbitu erakutsi etab.; bestea, eskola bat
edo bi aukeratzen ditugu eta beharrezko tra-

tamendua egiten diegu: enpasteak, hortzak
atera etab. Ahal den heinean, arratsalde-
iluntzean nagusiak jarduten dugu. Hain-
bat mediku joaten garenez, bada medikunt-
za orokorreko gaixotasun edo minak osatzen
ere ahalegintzen gara. Goazen guztiak den-
tistak gara, eta oinarrian horri lotutako egin-
beharrak garatzen ditugu, baina beste batzuk
medikuak ere bagarenez bada egin dezake-
gun apurra ere egiten dugu.
—Eta zein da hango egoera?
—Oso-oso txarto daude. Oro har, ez dauka-
te ezer ere. Herriko jendea zertaz bizi diren
galdetzen diozunean ez dakite zehazki eran-
tzuten, bizirautea da kontua. Halere, he-

«Dagoena dago, egin litekeen
apurra bakoitzak bere
harri-koskorra ematea da»

rrialdean dirua badago, petrolio aurrkitu ei
dutelako eta orain amerikarrak dabilta sar-
tzeko ahaleginetan... Baina herrialde oso po-
bre da, Marokogaz alderatuz, ez dauka zeri-
kusirik! Egin kontu, mauritanian bizi-itxa-
ropena 55 urte ingurukoa da! Zer salatuko
duzu? Zein baldintza txarretan dagoen mun-
dua! Dagoena dago, egin daitekeen apurra da
bakoitzak bere harri-koskorra eskaini. Gurea
elkarte txikia da, elkartu garen lau katu lagun,
gehienak Kantabriakoak eta gainontzekoak
bizkaitarrak, Murtziakoak ere. Dena gure
poltsikotik ordaindu dugu eta jasotako la-
guntza apurra hara eroateko baliabideak ero-
teko erabili dugu.
—Hizkuntzagaz arazo handiak al dituzue?
—Pare bat itzultzailegar behar egiten dugu,
bata sahararra da eta bestea hangoa. Ez diegu
piperrik ere ulertzen; haien hizkuntza hasania
da, arabieraren dialekto bat, frantsesa hitz egi-
ten ere badakite, baina nik hori ere ez dakit.
Dena dela, elkar ulertzea lortzen dugu. ○

San Isidroak 2008

Gogo biziz ekin dio berriro ere jai batzordeak eta ekitaldi andana prestatu dituzte hilaren **15etik 18ra**



Andra Mariko jai batzordeko gogoz betetako lagunak

Iaz “zaharberritu” zen Andra Mariko jaieta-
ko, San Isidroetako jai batzordea, aurreko
urteetako egoera ikusita jaiak biziberritzeko
asmoagaz. Jai batzordeko kide Oierrek dio-
enez, *“orduna arte oso jende gixi zegoen ba-
tzordean, eta Udalak oso diru gixi emoten
zuen; jaiak galtzeko zorian zeuden. Arazo
nagusia zen ez zela jendea joaten; jenderik ez
badago, txosnan ez dago inabazirik, ondorioz,
ez dago dirurik, ez kontzerturik, ez ezer ere
ekartzeko. Gu urtero joaten ginen eta anima-
tu ginen, esan genuen “ahaleginduko gara jai-
bultzada bat emoten!”*. Iaz handira egin
genuen apustu, pentsatuz kontua ez bazen
ondo irteten gure poltsikotik ipini beharko
genuela dirua, baina azkenean ondo inagarri
genituen jaiak eta espero genuena baino jende

*gehiago hurbildu zen! Asmoa herriko jaiak
mantentzea da, herriko jaiak ez galtzeko!”*.

Hilak 15, San Isidro eguna
Ohi legez, Meza Nagusiagaz emango zaio
hasiera (12:00) San Isidro jaietako egun
nagusia; ostean, ohitura denez, aureskua
dantzatuko da eta luntxa emango dute.
Arratsaldean idi-probak egongo dira
(17:00) eta gero haurrentzako jarduerak
(Malakate). Jaiak hasiera ofiziala emateko
Geroa eta Andra Mari ikastetxeetako ikas-
leek bertso-pregoa botako dute kalejiraren
ostean (19:00). Hortik aurrera, g(h)erriak
bizi dezala jaia! Oharra: pilota txapelketako
kanporaketak eta Galeako plater-tiro lehiaketa
aurreko asteburuan egingo dira. ○

Egitaraua

- **Hilak 16, barikua:**
18:00- Aerobic maratona eta Mus txapelketa.
21:00- Kontzertuak: Patada en la papada,
Early Reflection, EH Sukarra (eliza alboan)
22:00- Haur zinea (Malakate).
- **Hilak 17, zapatua:**
10:00- Haurrentzako jolasak (Malakate).
12:00- Sokatira erakustaldi-lehiaketa.
14:00- Trikipoteoa eta herri bazkaria.
18:30- Poteo erraldoia fanfarreagaz.
20:30- Itxasargiako dantza erakustaldia
21:00- Kontzertuak: Entidad, Nerviosah,
DAR eta Unazainegaz erromeria
22:00- Haur zinea (Malakate).
- **Hilak 18, domeka:**
Goizean zehar talo eta txorizo dastaketa
12:00- Txakur lehiaketa (herritarrei zabalik).
18:00- Erromeria KAMP taldeagaz.
18:00- Pilota txapelketako finala.

IPAR URIBEKO BERTSO TXAPELKETA, HILAK 17

Andres Isasi Musika Eskolara hurreratu
beharko dute bertsozaleak hilaren 17an
(18:00) Ipar Uribe Bertsolari Txapelketako
irabazlea ezagutzeko. Txapelketa honetan
Uribe Kosta, Mungialdea, Uribe Butroe eta
Txoriherriko bertsolariak jarduten dute eta
Getxoko final honetan egongo diren 6
bertsolarik Bizkaiko Bertsolari
Txapelketarako txartela lortuko dute.

HIRU MAGIA SAIO ANTOLATU DITU EGIZUK

Egizu ekimenak hiru magia saio prestatu
ditu hil honetarako eta azaldu dutenez, *“Tor
Mago getxoztarak bere ilusio munduko
ateak zabalduko dizkigu txiki, gazte zein
zaharrei, dibertigarria zein partehartzaile
den saio bategaz”*. Magia ikusizunak hilaren
13an (Algortan Pipper’s Irish Pubean
10:15ean; Erromoko Santa Eugenia kultur
etxean 17:00etan) eta 14an (Aldai
Patronatuan 20:00etan) izango dira.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Alberto Garcia > Umore Azokako koordinatzailea

“Kaleko arteak bultzatu nahi dituen azoka da gurea”

Maiatzaren 22tik 25era IX. Umore Azoka egingo da Leioan. Mundu osotik etorritako artistek makina bat ikuskizun aurkeztuko dituzte. Alberto Garcia Umore Azokako koordinatzailea da. Aurtengo edizioaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

—Zein da azokaren helburua?
—Asko dira, baina azpimarragarriena kaleko arteak herritarrei hurbiltzea dela esango nuke. Horrez gain, gurea azoka den heinean jarduera komertziala ere badaukagu; batetik, espektakulua aurkezten duten taldeak ditugu, eta bestetik, estatu osotik kontratatzaileak etortzen dira, hau da, artistak kontratatzea datozenak, gero euren herrietan lan hauek ikus daitezzen.
—Barrea eragitea ez da lan makala...
—Honetan diharduten profesionalak barrea eragitea negarra eragitea baino askoz ere gatzagoa dela esaten dute beti. Hori da zailtasunik nagusiena. Gainera, kontuan izan behar dugu emanaldiak kalean burutzen direla eta bertan artistaren jarduna desitxura dezaketen faktore ugari egoten dira. Barrea eragitea oso zaila da, eta kalean are gehiago.
—Aurtengo programazioari buruz zer esan ahal diguzu?
—Guztira 47 talde etorriko dira Leioara: Euskal Herrikoak, estatukoak zein atzerrikoak. Hiru multzo horien artean oreka mantentzen



Argazkian, Alberto Garcia

ahalegintzen gara. Aurten, besteak beste, Australia, India, Txina eta Belgikako taldeak etorriko zaizkigu.
—Estreinaldirik bai?
—Erabateko 18 estreinaldi dakartzaguz eta estatuan estreinatzen diren beste 14, hau da, nazioartetik datozen gehienak lehenengoz erakutsi dituzte lanak gurean.
—2000. urtean kalera atera zenuten azoka...
—Umore Azoka urte hartan jaio zen. Hori baino lehen Barne Umorezko jaialdia ospatzen zen eta apurka-apurka kaleko ikuskizunak eskaintzen hasi ginen. Euskal Herrian zein estatuan arlo honetan hutsune handia zegoela ikusi

genuen: konpainiek oso zaila zuten haien ikuskizunak aurkeztea eta jaialdietako programatzaileek, berriz, ikuskizun onak kontratatzea. Gainera, Euskal Herrian konpainia ugari zeuden eta atzerriara jo behar izaten zuten ikuskizun berriak aurkeztera.
—Azken edizioan umorea baino espektakulu hutsa bilatu zela kritikatu zuten batzuek...
—Guk beti esan dugu kaleko arteetako azoka dela gurea, ez soilik umorezkoa, nahiz eta honek lekurik garrantzitsuenak bete. Aurten ere umorezkoak ez diren laupabost ikuskizun ditugu; hala ere, ikuskizun gehienak, %80, umorezkoak dira. ○

Kalea aldamikatuz

Apirilaren 12an Leioako 5. Gazte Eguna ospatu zuten

“Herriaren irria, gaztea” lelopean Leioako 5. Gazte Eguna antolatu zuen herriko Gazte Asanbladak joan den hilaren 12an. Aurten kalearen erabilpena aldarrikatu nahi izan zuten eta kalea bera erabili zuten egun osoko programa garatzeko. Goizean gazteek egindako produktuekin azoka eta kirol leihaketak. Izerdiak eta gero, merezitako bazkaria (ehun bat lagun elkartu ziren). Eta arrastian musikarako tartea. Traktore batean DJek herriko kaleak alaitu zituzten. Gero kontzertuak etorri ziren Banda Batxoki eta Materia Gris taldeen eskutik. Eta amaitzeko, Unzain anaiek eskainitako erromeria.



udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
IMPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net
Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA

ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Santi Neira > kultura zinegotzia

“Gure asmoa **film laburrak baino gehiago** eskaintzea da; hitzaldiak ere antolatu ditugu aurten”

Maiatzaren 26tik 31ra Josu Murueta kultur etxean zinemaldia egingo da. Bertan Euskal Herriko eta atzerriko makina bat film labur ikusteko aukera izango dugu. Guztira, 120 bat lan eskainiko dira. Santiago Neira kultura zinegotziagaz egin dugu berba.

—Zenbat film labur aurkeztu dituzte V. Film Laburren Lehiaketan?
—Epea bukatzeko hamar egunen faltan gaudela, 120 bat lan ditugu, iaz baino gehiago.
—Nongoak dira?
—Lehiaketara aurkeztu gura duen ororentzat irekita dago, ondorioz, leku askotatik datoz hona: bai Euskal Herritik, bai atzerri-tik etorritakoak, estatuko beste tokietakoak, batez ere. Asko Sevilla, Bartzelona eta Ma-driletik datoz, ikus-entzunezko eskolak bai-taude eta filmak bidaltzen dizkigute berta-tik.
—Film labur euskaldunik al dago?
—Bai, noski. Horretarako ere antolatzen dugu lehiaketa hau, film euskaldunak aur-kez daitezen.
—Zeintzuk dira sariak?
—Guztira hiru dira V. Film Laburren Leihaketan banatuko diren sariak: Umo-rezko film labur onenari 1.000 euro eman-go zaizkio; dokumental onenari 2.000 euro



Argazkian, Santi Neira

eta azkenik, *Ikus-entzunezko Eskolak* deituta-ko atalean 1.500 euro banatuko dira. Le-hiaketa aipatu ditudan hiru atal hauetan da-go banaturik.
—Nobedaderik al dago edizio honetan?
—Bai. Lehenik eta behin, lehiaketa ezagu-tzera emateko web orria egin dugu. Pu-blizitatea guztiz beharrezkoa da ikusen-tzunezko eskoletara heltzeko. Gazteek, gai-nera, gero eta gehiago erabiltzen dute inter-net eta horregatik oso egokia iruditu zitzaiz-

gun sarea erabiltzea jaialdia aurkezteko. Web orri hau euskaraz eta gazteleraz dago eginda. Horren bidez lanak aurkezteko aukera ere eskaintzen dugu. Horrez gain, beste berri-kuntza batzuk ditugu aurten, izan ere film laburrak baino gehiago eskaini nahi dugu, eta esaterako adituak emango dituzten hi-tzaldi sorta ere antolatu dugu. Eta azkenik, inauguraziorako aktore ezagunen bat ekarri gura dugu. ○

Informazio gehiago: www.erandiocortos.net

Lutxana-Sondika trenbidea

Herriok lotzen dituen trenbide zerbitzua **berriro martxan jartzea** eskatuko dute



Lutxanako tren geltokia

Erandioko udalak Sondika eta Lutxana lotzen dituen trenbide garraio zerbitzua berriro martxan jartzea eskatuko du. Ezker Batuak aurkeztutako eskaera egitea aho batez onartu dute tokiko udala osatzen duten alderdi guztiek.
Aipatutako garraio zerbitzua 1996. urtean bertan behera utzi zuen Eusko-trenak *“bidaia-ri eza”* argudiatuta.
Ezker Batuko kide Vicente Cubillasek beharrezkotzat jo du trenbidea berriro mar-txan jartzea *“gaur egun askoz jende gehiago bizi da eskualdean, Asua inguruan etxebizi-tza eta lantegi andana eraiki dituzte eta”*.
Cubillasen arabera, trenbide horrek

“zerbitzu ekologikoagoa eskaintzen die herri-tarrei, gaur egun bertako langileek autoz joan behar dutelako halabeharrez”. Proiektu hau, gainera, Metro Bilbaok Lutxanan duen gel-tokiagaz lotzen da.
Gaur egun trenbide hori egoera ego-kian dago Euskotrenek Lutxanan baitu tai-lerra, eta ondorioz, trenak bertara heltzeko, errailak konpondu dituzte hondatzen ziren bakoitzean.
Erandioko alkate Mikel Arieta-Arau-nabeñak eskaera lehenbailehen egingo due-la agindu du, *“herritarren aspaldiko eskaria delako”*, horretarako Euskotren eta Garraio Partzuergora zuzenduko da. ○

HERRIAREN DESANEXIOA
OSPATZEKO KONTZERTU
BI EGINGO DIRA

Aurten Erandio Bilbotik desanexionatu zeneko 25. urteurrena betetzen da eta hori ospatzeko, Erandioko Musika Eskolak maiatzan bi kontzertu eskainiko ditu. Lehenengoa, maiatzaren 30ean (barikua) Erandio Goikoako Santa Maria Elizan. Bertan musika klasikoko kontzertua izango da 20:00etatik aurrera. Bigarrena, maiatzaren 31n (zapateria) izango da Erandioko Merkatu Zaharrean. *Polos Opuestos* taldeak 20:00etan kontzertua egingo du. Bai bata bai bestea Erandioko Musika Eskolako ikasleek emango dituzte.

BERBOTS ELKARTEA
EUSKARAZKO LIBURUAK
IRAKURTZEAREN ALDE

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* egitasmoaren bigarren edizioa aurkeztu du. Euskaraz irakurtzea sustatzeko asmoz sortu den ekimena Hego Euskal Herriko 17 herritan gauzatuko da, tokian tokiko euskara elkarteek, udal liburutegien eta liburu denden elkarlanari esker; horien artean Berbots! Erandion Euskaraz taldea dugu. Kanpainia Liburuaren Nazioarteko Egunean (apirilak 23) hasi zen eta uztailearen 26ra arte iraungo du. Iaz bezala, ekimenak bere webgune propioa dauka. Bertan, liburu bakoitzaren inguruko iruzkinak eta beste webguneetan argitaratutako biografiak, bibliografiak, kritikak eta abar ikusteko aukera dago.

Informazio gehiago:
www.topagunea.org/irakurri

ASTRABUDUKO
LIBURUTEGIAREN
BERRERAIKETA

Hasi dira jada Astrabuduko liburutegia berreraikitzen. Helburu nagusia umeentzako irakurketa gela eraikitzea da. Horretarako altzairu berriak ipiniko dituzte.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Basolanak

• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?

  Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**

 www.arlan.biz

LOROÑON 350 TXALET BAINO GEHIAGO ERAIKITZEAREN AURKA

Loroñon 350 txalet baino gehiago eraikitzeko egitasmoa “espekulatzaile eta txikitzailetzat” jo du Sopelako Gazte Asanbladak. Udaletxetik hondartzarako bidean, babes ofizialeko 50 etxebizitza eraikitzearen truke, bizitza bakarreko eta biko 350 txalet baino gehiago altxatzeko baimena eman dutela salatu du bertako gazte asanbladak. Horrez gain, landa horien balio ekologikoa azpimarratu dute. Asanbladaren esanetan hasiera besterik ez da: “Gaur egun 12.000 lagun bizi dira Sopelan eta urte batzuen buruan, kopuru hori 20.000ra heltzea du helburu Lurralde Zati Planak”. Hori salatzeko asmoz, apirilaren 19an obrak ikustera joan ziren gazteak.

MEKANIKA IKASTAROA UDA OSTERA ARTE ATZERATU DUTE

Oinarrizko Mekanika Ikastaroa uda ostean abian jarriko da azkenean. Jarduera bakoitza ordu eta erdikoa izango da eta partaideek gurpila aldatzen, olio maila ezagutzen eta kateak jartzen ikasiko dute, besteak beste. Hau da, gidari batek jakin behar duen auto baten oinarrizko mantentzea. Praktikaz gain, teoria ere irakatsiko da, autoa erabat ezagutzeko. Ikastaroa doakoa izango da eta Uribe Kosta autoeskolak emango du.

KIROLARI ONENAREN EUSKADI SARIA JASO DU EUNATE AGIRREK

Unai Basurko itsasgizon portugaletetarrak eta Eunate Agirre bodyboarder sopeloztarrak irabazi dute 2007ko Kirolari Onenaren Euskadi Saria. Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak adierazitakoaren arabera, kirol alor zabalean kalitatea eta eredugarritasuna bultzatzea da helburua.

Sahararen alde

Udan **haur sahararrak** hartzeko “**Oporrak Bakean**” abian jarri du Nuyum elkarteak



Haur saharaiak Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduan

Berriro ere Nuyum elkarteak *Oporrak Bakean* kanpaina abian jarri du Sopelako udalaren laguntzaz.

Laugarren saio honek, uztailean eta abuztuan etxean Algeriako Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetatik heltzen diren 7 eta 12 urte arteko haurrak etxean hartzeko prest dauden familia sopeloztarrak lortu gura ditu. Beraz, “*programa honekin ume saharar bat etxean hartzena animatu gura ditugu familia sopeloztarrak*” adierazi dute Nuyum elkarteako kideek.

“*Kanpamenduetan jasaten dituzten egoera gogor eta ankerretik bolada batez aldentze-*

ko aukera ematen diegu”, azaldu dute Nuyum elkarteako bozeramaileek. 2007an bost haur etorri ziren Sopelara.

Neska-mutil horien elikadura eta osasun-zaintza hobetzea da helburua eta, bide batez, beste kultura ereduak ezagut ditzaten. Eskaera onartu gura dutenek Nuyum elkartera deituz egin dezakete.

Sahararen aldeko elkarte 2005. urtean sortu zuten Ander Deunako ikasleek. Bere helburua Uribe Kostako Mankomunitatean saharar herriari ematen zaizkion laguntza guztiak bateratzea da, eta lortu egin dute. ○

Harremanetarako: 695 788 185

Patxi Iza > kantaria

“Gaur egun **ez dugu kantatzen** eta hori San Mamesen ikus dezakegu”



Argazkian, Patxi Iza

Guztioi ezagun egiten zaigu Patxi Iza telebistako telesail askotan ibilia da eta (Goenkale, Cuentame...). Hala ere, aktore baino, kantari moduan definitzen du bere burua. Txatanua Funtz Band orkestrako abeslaria izan da eta betidanik ibili izan da musika munduan. Orain, euskal kantuei buruzko ikastaroa ematen dabil Helduentzako Eskolan.

—Nolatan ba euskal kantuei buruzko ikastaro bat?

—Helduentzako Eskolara (EPA) etorri nintzen Euskal Herriko musikari buruzko hitzaldi bat ematenra eta asko gustatu omen zitzaíenez, ikastaro bat ematen ari naiz orain: kantuen bitartez ikasi. Guztira zortzi saio egingo ditugu eta azkeneko bi egunetan, gitarragaz, saio bereziak egingo ditugu. —Eta zer aztertzen duzue ikastaroan?

—Era guztietako kantak: euskarazko kantak, bertoko kantak, herri musika azken finean. Ikasleek ikas dezaten gauza jakin batzuk azaltzeko pentsatuta dago ikastaroa. Abesti batzuek azhotsaren fisika azaltzen dut: nola egiten dugun soinua, nola egiten dugun bibrazioa, zelan kantatzen dugun...

—Edonork abes dezake?

—Jakina, den denok kanta dezakegu, guztiok baitugu kantatzeko instrumentua, ahotsa. Baina tresna hau ondo erabiltzeko, ikasi egin behar da; gainera, seguruenik instrumenturik zailena da ahotsa: goiko mailako kantari bat izateko ordu pilo bat eman behar dituzu.

—Zer motatako istorioak aurki ditzakegu irakasten dituzun euskal kanta horietan?

—Horretarako euskal kantuen historiari errepasotxo bat bota behar diogu; nik ikasleei beti azaltzen diet erromantizismoa zer den literaturako kontuak azaltzeko: erromantizismoa zer den, Europa osoko herriek nola batu zituzten herri kantak, kantutegien sorrera...

—Nortzuk joaten dira eskolak hartzera?

—EPAko jendea, hau da, hona adin guztietako jendea dator. Hona datozenek badakite musikaren bitartez gauza batzuk ikasiko dituztela. Momentu honetan 30-40 pertsona inguru datoz; bada jende mordera!

—Aspaldidanik ez da kantu herrikoi eza-gunik sortu: zergatik izan daiteke hori?

—Gaur egun kalean lehen bano askoz gutxiago kantatzen dugu; hori da gakoa. Esate baterako, Oskorrik herri kantuzko hamabi disko plazaratu ditu, guztira berrehun bat kanta. Beraz, hor badaukagu ezagutzeko aukera hori. Beste gauza bat da kantatzea: ohitura galdu dugu, inoiz afariren batean kantazen dugu,

«Ikastarora datorrena musikaren bitartez ikastera dator»

horixe. Gainera, tabernetan ezin da abestu. San Mamesen ikusten dut nik hori adibidez. Lehengo egunean Liverpool eta Chelsearen arteko partida ikusi nuen eta inbidia eman zidan bertan zelan kantatzen zuten ikusteak. Denek ezagutzen zituzten kantak, jende guztia kantatzen zebilen. Hemen ez dugu kantatzen: beharbada, badaude batzuk tarareatzen dutenak, baina oro har, ez dakigu kantatzen. Penagarria da hori, baina zer egingo dugu, horrelakoa da bizitza. ○

DIDAK

hamilton

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
 - Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
 - Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.

Tel: 94 676 30 12

info@didakhamilton.com

4 bide

pinturak

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA

Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA

IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA

Tfnoa.: 94 676 02 66

Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK

Taberna

Bentatxu, 2

48600 Sopela

Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,

etxera eramaten dizugu

egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78

T.: 94 491 27 34

Ekitaldiak

- **Maiatzak 6:** Lagunarteko norgehiagoka. Berango-Athletic-Brasil (20:00).
- **Maiatzak 8:** Musika klasikoa (18:30).
- **Maiatzak 10:** Futbol 7. Karabigane-Gorliz (10:30/12:30).
- **Maiatzak 11:** Otxandategi Dantza Taldea. Dantza eta musika. (13:00).
- **Maiatzak 15:** Hitzaldia: artrosia, artritisa, erreuma (19:00).
- **Maiatzak 19-24:** Erakusketa: Emakume Elkartea-Addagio Ballet elkarte (egun osoan).
- **Maiatzak 19:** Hitzaldia: Kantauri itsasoko biologia (16:30).
- **Maiatzak 20:** Baleta: Bideoa eta pasarela (18:30).
- **Maiatzak 22:** Hitzaldia: Ume larrialdiak etxean (19:00).
- **Maiatzak 24:** Txori kantarien lehiaketa (9:00 Elexalden)
- **Maiatzak 24:** Herri-krosa (11:00 eskolatik).
- **Maiatzak 24:** Berangoko milaren XX. edizioaren bideoaren emanaldia (12:00).
- **Maiatzak 26-31:** Erakusketa: Eskolaz kanpoko ekintzak, fosilak eta mineralak.
- **Maiatzak 28:** Nagusientzako musika klasikoa (19:00).
- **Maiatzak 29:** Hitzaldia: Bular eta umetoki lepoko minbizia (19:00).
- **Maiatzak 30:** Erakustaldia: Eskolaz kanpoko ekintzak (16:30ean eskolan).
- **Maiatzak 30:** Eskupilota partidua (19:00etan frontoian).
- **Maiatzak 30:** Herriarentzako dantzaldia (19:00etan Nagusien Etxean).
- **Ekainak 5:** Hitzaldia: bihotz eta arnasketa gaixotasunak (19:00).
- **Ekainak 6:** Abesbatzen kontzertua (20:00).
- **Ekainak 7:** Literatura antologia (19:00).
- **Ekainak 12:** Hitzaldia: Loaren desorekak eta azalaren gaixotasunak (19:00).

X. Kultura Jardunaldiak

egingo dira maiatzean eta ekainean herriko elkarte-en laguntzarekin



Ekitaldi gehienak kultur etxean egingo dira

Badira hamar urte Berangoko Kultur Etxeak Kultura Jardunaldiak antolatzeari ekin zionetik. Hauetan herriko talde eta elkarte guztiek hartzen dute parte eta eurak dira, hain zuzen ere, egitarau oparoa prestatzeaz arduratzen direnak. Uribe Kostako herri gehienetan Aste Kulturala ospatzen bada ere, berangoztarrek bi hil oso ematen dizkiete kulturari. Otsaila hasieran batu ziren eta finkatu zuten maiatzaren 4an hasi eta uztailaren 4a arte luzatuko den egitaraua. Kirolak, literatura, ikus-entzuneakoak, musika eta hitzaldien artean aukeratu ahal izango dute zahar eta gazteek.

Berangoetako Kultur Etxean izango dira ekintza gehienak. Maiatzaren 8an Im-promptu taldearen eta herriko musika eskolaren emanaldia izango da arratsaldeko 18:30ean. Hilaren 19tik 24ra, Emakume Elkartek eta Addagio Ballet elkarteak antolatutako erakusketa ikusi ahal izango da. Honez gain, hitzaldi ugari izango dira, osasunaren, itsas-biologiaren eta kultur ondarearen inguruan. Kirolak ere bere tarte izango du eta herri-krosa, futbol partidak, idi-probak eta esku pilota partidak izango dira, besteak beste. Ez dira faltako ume-entzako emankizunak. ○

Ana Bacigalupe > Barrikako Umeskolako gidaria

“Haurren hazkunde prozesuarekiko errespetua izango da saioen oinarria”



Ana Bacigalupe bere semearekin

Ana Bacigalupe doula bilbotarra izango da Barrikako Kultur Etxeak antolatu duen *Umeskola* ekimeneko gidaria. Gurasoak amatasun edo aitatasun prozesuan laguntzen dituzte doulek. Antzina, amak edo esperientziadun ahizpak izaten ziren laguntza hori emateaz arduratzen zirenak; gaur egungo familia egiturak laguntza hori eskaintzea zailtzen du. Sortzen den gabezia hori betetzeko lan egiten dute doulek.

Bacigalupe, *Haurdun* elkarteak kidea da eta urteak daramatza gurasoentzako laguntza taldeak zein haurrentzako masaje ikastaroak antolatzen. Hala ere, erakunde publiko batek bultzatutako lehenengo ekimena da Barrikakoa: “*Onain dela hilabete batzuk haurrentzako masaje tailerra eman nuen Kultur Etxean eta izan zuen arrakasta ikusita, zerbait gehiago antolatzea proposatu zidaten. Asko poztu ninduen, iniziatiba udalarena izan baitzen*”. Saio nagusi bi izango ditu *Umeskolak* eta bakoitzean gai bat lan-

duko dute: “*Dena ondo badoa eta parte hartzaileek gura badute, ikasturte osoan bilduko den talde bat sortzea gustatuko litzaideke*”. Umeen elikadura eta lo egiteko ohiturei buruz edota seme-alabek bikote harremanean duten eraginari buruz berba egingo dute, besteak beste: “*Ohiko bideetatik jaso ezin daitekeen informazioa lantzea da nire helburua. Azken finean, guraso gehienek za-*

«Maiatzaren 13an eta ekainaren 11n egingo dira Umeskolako saioak»

lantza berdintsuak izaten dituzte. Umeekiko eta bere denboran eta beharrekiko errespetua elkarritzeta guztien abiapuntua izango da”. Maiatzaren 13an eta ekainaren 11n izango dira eskolak, goizeko 10etatik 12etara. Parte hartu gura duenak Barrikako Kultur Etxean eman beharko du izena. ○

Haurdun Elkarte: 629 101 695



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



T.: 946 761 128 / www.basartena.com

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

MENDI IRTEERA
MAIATZEAN GORLIZEN

Euren egitaraua indartzeko asmoa agertu zuten ikasturte hasieran Gorlizko Mendizale Elkarteko lagunek. Hori dela eta, maiatzaren 23, 24 eta 25erako Hiru Errege Mahairako irteera antolatu dute. Arratsaldeko 5:30ean irtengo dira barikuan eta bakoitzak bere afaria eta lo egiteko zakua eraman beharko du. Zapatuan, goizean goiz, autoak hartu eta mendi magalera hurbilduko dira. Txangoa bukatutakoan, afaria egingo dute. Domekan beste mendi bat igotzeko aukera izango du gura duenak. Maiatzaren 10erako irteerari buruzko zehaztasun gehiago emateko bilera antolatu dute, goizeko 11etan Eloisa Artazako erakustaretoan.

MAIATZA LEMOIZEN

Kultur etxeak ekintza ugari antolatu ditu maiatzerako. Urizarren, Isidro Deuna jaiak ospatuko dituzte 10, 11 eta 15ean. Hilaren 17an Nekazaritza eta Artisautza azoka egongo da Armintzan. 16rako, Bertso Afaria antolatu dute Andrakako Sagardotegian eta 18an Rufino Arrolaren CD-aren aurkezpena egingo da Trinitadeko jaien barruan.

IKASTAROA GOÑI
PORTALEN

Maiatzaren 12a arte egongo da Plentziako Kultur Etxeak antolatu duen *Kontserba begetalak eta mermelada* ikastaroan izena emateko aukera. 2008ko maiatza eta ekaineko eguaztenetan izango dira eskolak (guztira 16 ordu), Plentziako ikastetxean.

Informazio gehiago: 94 677 55 41

PLENTZIA

Ibilgailu klasikoen lehenengo erakusketa hilaren 25ean



Goizeko 10etan hasiko da erakusketa Plentziako Astilleron

Maiatzaren 25ean egingo dute Plentzian Ibilgailu Klasikoen Lehenengo Topaketa. Uribe Kostatik zein Iberiar penintsulako bazter askotatik ekarritako 80 ibilgailutik gora parte hartzea espero du Ricardo Frances antolatzaileak.

Ekimena herritar batzuen eta udaleko langileen akordio bat dela medio sortu zen. 25 urte baino gehiago dituzten ibilgailuei zirkulazio zerga kendu die udalak. Hau eskertzeko, urtero-urtero ibilgailu klasikoen topaketak antolatzeaz arduratuko dira jabe-

ak. Autoak eta motorrak ikusi ahal izango dira Astilleron goizeko 10etatik aurrera. Hiru sari banatuko dituzte: ibilgailu zaharrenari, urrunenetik datorrenari eta hobereen mantendua dagoenari. Hala ere, parte hartzaile guztiek diploma jasoko dute. Ondoren, kotxe-karabana egingo dute Gorliz, Lemoiz eta Plentziako kaleetan zehar. Ibilaldi hau Plentziako Astilleroan amaituko da eta bertan luncha egongo da parte hartzaile guztientzat. Urrian antzeko beste topaketa bat antolatzeko asmoa dute. ○

Mai. 5 - 20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Ibilgailu Klasikoen Erakusketa.** Plentziako Astilleroa. Maiatzak 25, domeka. 10:00.

GETXO

► **Bosteko 08.** Erromoko erakustaretoa. Apirilaren 29tik maiatzaren 16ra arte.
► **Arteskola.** Algortako erakustaretoa. Maiatzaren 12tik 24ra.

LEIOA

► **San Juan jaietako kartelak.** Erakusketa aretoa. Maiatzak 5, astelehena.
► **Sahara. Ametsa eraikitzen.** Erakusketa aretoa. Maiatzaren 15etik ekainaren 15era.

URDULIZ

► **Paisaiak eta erretratuak. José Ramón Mediavilla.** Erakustaretoa. Maiatzaren 5etik 30era.
► **Akuarelak. Alicia Vergara.** Erakustaretoa. Maiatzaren 5etik 30era.

ZINEMA

URDULIZ

► **La Masai Blanca.** Kultur Etxea. Maiatzak 9, barikua. 19:30.
► **La mujer cuerda.** Kultur Etxea. Maiatzak 10, zapatua. 19:30. Sarrera: 3 euro.
► **Franklin y el tesoro del lago.** Kultur Etxea. Maiatzak 17, zapatua. 18:30. Sarrera: 2 euro.
► **Juno.** Kultur Etxea. Maiatzak 17, zapatua. 20:15. Sarrera: 3 euro.

GETXO

► **Riparo.**

► **Jaia**

Euskal jaia ospatuko dute Lamiakon

Lamiako Maskarada Kultur Elkartea buru duen Leioako talde kultural eta sozialen multzoak urtero antolatzen du festa hau. Iazko gaia apur bat orokorra izan bazen ere, aurten Lamiako eta Leioako Baseriak izango dira ardatz nagusia: antzina gure herrian zegoen bizimodua, ohiturak, baseriak... Kultur elkartearen arabera porlanari esker desagertzen dabilta ohitura horiek, eta horiek aldarikatzeko nahian, Euskal Jaia antolatu dute. Festa goizeko hamaiketan hasiko da. Bertan baseriko produktuen azoka egongo da ikusgai eta taloak dastatzeko aukera izango da. Hamabietan, urmeentzako tailerrak eta ordu batean txotx erraldoia. Herri bazkaria, berriz, hiruretan hasiko da.

• **Non:** Lamiako • **Noiz:** Maiatzak 10 • **Ordua:** 11:00etatik aurrera

GETXO

► **Mikel Markez.** Getxo Antzokia. Maiatzak 16, barikua. 20:00. Sarrera: 6 euro.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Gronholm metodoa.** Txalo. Altzagako merkatu zaharra. Maiatzak 29, eguna. 20:00.

GETXO

► **Soy especial.** Vuela Bonita Korporation. Getxo Antzokia. Maiatzak 17, zapatua. 20:00. Sarrera: 6 euro.

LEIOA

► **Inmundo doblador de barrotes.** La enana naranja. Maiatzak 11, domeka. 12:00. Sarrera: 4 euro.
► **Más vale pájaro en mano que bocao en los güevos.** Javier Mañón. Auditorium. Maiatzak 22, eguna. Sarrera: 12 euro.

BESTEAK

GORLIZ

► **Gorlizko Saria. Txirindulari lasterketa.** Maiatzak 17, zapatua.
► **Turismo Kalitateari hurbiltasun Jardunaldia.** Erakusgela. Maiatzak 29, eguna. 16:30.

URDULIZ

► **Erditzea prestatzeko berbaldiak.** Kultur Etxea. Maiatzak 15, eguna. 9:00.
► **Hitzaldia: “Uribe Kostako Etorkizuna: bardintasuna eta iraunkortasuna”.** Kultur Etxea. Maiatzak 16, barikua. 11:00.

LEIOA

► **Nekazal azoka.** Pinueta. Maiatzak 11, domeka.

MUSIKA

LEIOA

► **Ganbera musikako zikloa.** Auditorium. Maiatzak 7 eta 14. 22:00. Sarrera: 3 euro.
► **Hnuy illa dantza.** Auditorium. Maiatzak 9, barikua. 20:30.
► **Leioa IV Sanbar Blues jaialdia.** Auditorium. Maiatzak 10, zapatua. 22:00.

Getxo Antzokia. Maiatzak 14, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,90 euro.
► **Horton.** Getxo Antzokia. Maiatzak 18, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

LEIOA

► **Padre nuestro.** Auditorium. Maiatzak 6, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
► **In the pit.** Auditorium. Maiatzak 13, martitzena. 20:00.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Egun handia

Bere antzineko distira berreskuratu zuen laster eraitsiko duten Gran Cinema zaharrak. Nerbioak, alfonbra gorria, flashak, ingurua jendez gainezka eta ikusmin handia. Unai Elorriaga algortarraren *SPrako tranbia* nobela ospetsuan oinarritutako pelikularen estreinaldia egin zuten Getxo Antzokian apirilaren 25ean. Guk ez genuen egun handi hura galdu izan nahi. Orain *Un poco de chocolate* -horrela deitzen da pelikula- ikusteko zinema aretoetara joateko ordua da.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Belardian

Ezer gutxi dakigu argazki honetaz,
Galeako gotorlekuaren aurrean
XX. mendearen lehenengo urteetan
ateratakoa dela baino ez. Hiru lagun
berriketan belar goxo eta bigunaren
gainean etzanda, seguru asko uda
aldeko egun epel batean.
Zertaz arituko ziren?

GALEAKO FORTEA
Getxoko Udal Liburutegiak utzitako argazkia

[berbetan]

Getxoko Andra Mariko elizako abadea da Lontzo Zugazaga, baina orain bi urte eta erdi iritsi zen. Izatez gamiztarra da bera, 1943an sortua, euskaldun zaharra eta zalea. Eta euskaldunon hizkuntzarekiko zaletasun hori txertatu du elizan. Meza batzuk euskaraz eskaintzen ditu eta bertso batekin bukatu ohi du elizkizuna, beti ere ebanjelioaren bidetik. Baina ezinegon nabari zaio gorputzean, hamaika saltsatan sartuta baitabil. Elizbarrutiko katekesi ordezkaria izan da Bizkaian hamazortzi urtez eta egungo arduradunekin lan egiten jarraitzen du. Deustuko Unibertsitateko Teologia fakultatean klaseak ematen ditu eta liturgia zein katekesi liburuak euskaratzen dabil. Lagunakaz alkartu eta jendearekiko hartu-emonakaz gozatzen du abadeak.

Lontzo Zugazaga

Jesusen urratsen bidetik

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Noiz piztu zitzaizun abade izateko gogo?

—Oinarririk sendoena ez zen izan elizarekiko hartu-emona, etxekoa baizik. Zorte handia izan dut etxean, gurasoak oso fededunak izan dira eta. Eskolan hasi nintzen katekesian eta mezataria joaten. Meza-laguntzaile izan nintzen gero baina etxean irakatsi zidaten Kristogaz hartu-emona gizabiderako ez zela kaltegarria, mesedegarria baizik.

—Eta apaiz sartzearabaki, noiz?

—Hogei bat urterekin. Filosofia ikasten nenbilen eta buruari buelta asko eman nizkion osagile egin edo abade joan. Azkenean, teologia ikasten nengoela, astiro hausnartu eta apaiz joatea erabaki nuen.

—Bertsozalea zara, mezatarako ere bertsoak idazten dituzu. Nondik datorkizu zale-tasun hori?

—Gure etxean oso euskalzaleak dira danak. Dantzariak eta kantariak izan gara. Seminarioan filosofia ikasten nenbilela sortu zitzaidan bertsotarako gogo. Euskaraz asko irakurtzen nuen eta lagun batek irakatsi zidan metrika eta errima. Hamazortzi urte-gaz hasi nintzen olerkiak idazten. Harrezkero erabili dut lagunak zorientzeko,

ospakizunetan, baita mezatan ere. Ebanjelioaren haritik, bertso bategaz meza bukatzea gustuko dut. Bizkaia Irratian urte askotan nabil mezak euskaraz ematen eta han ere bertsoaren bat botatzen dut.

—Gaur egungo bertsolaritza jarraitzen duzu?

—Bai, asko gustatzen zait ganera.

—Zeintzuk dituzu gustukoen?

—Lizaso asko gustatzen zait, baita Egaña ere. Bertsoaren freskotasuna gustatzen zait eta horretan Lizaso oso herrikoia da. Gazteen artean Iturriaga eta Elortza ditut gus-

tokoa da eta zaindu behar da. Jesusen mezua bertoko jendeari bertoko hizkuntzan eman behar diogula uste dut, ulergarria eta esanguratsua izan behar du.

—Eta mezaz gain, zer egiten duzu?

—Mezatik aparte gauza asko. Jendeak uste du mezak ematea bakarrik dela gure lana, baina beste gauza asko egin behar ditugu: katekesian ia berrehun ume dauzkagu bertan, batzarrak gurasoakaz, katekisten formazioa prestatu behar da, materialak prestatu, helduen katekesia ere egiten dugu, aisialdi taldeekin egon behar dut... Hortik

“Ebanjelioaren haritik, bertso bategaz meza bukatzea gustuko dut”

tuko eta hemen Xabi Paya, modan jarri zai-guna, hori ere bai.

—Elizan euskara gero eta gutxiago entzuten da.

—Bai, toki askotan atzeraka egin du. Euskal zonaldeetan jarraitzen du, baina Erdara dagoen lekuetan, gutxiagora doa. Andra Marin domekero 11:00etako meza euskaraz egiten dut osorik eta hitzaldia gero, gaztekeraz laburtzen dut. Euskara ber-

aparte, Gotzaindegian egoten naiz. Katekesi arduraduna izan naiz hamazortzi urtez eta taldean parte hartzen jarraitzen dut. Arduradunak prestatzen lan egiten dut. Gainera, liturgia eta katekesi liburuak itzultzen nabil. Deustuko Unibertsitatean klaseak ematen ditut Teologia fakultatean. —Inoiz ostu al dizute elizako “zepilloa”? —Andra Marin behin gertatu zitzaidan, jaunartze egun batean, euskarazko mezan.



Meza ematen nenbilen eta mutil bat ikusi nuen otzaratxoak hartu eta koruko aldera joaten, dirua batzera joango balitz bezala. Gero, alde egin zuen. Konturatu nintzen, baina gaztea zen, korrika atera zen eta ez genuen harrapatu. Beste eliza batzuetan ere ostu omen zuen egun horietan.

—**Erromoko abadeak lehenengo jaunartzeak haurrak kaleko arropa jantzita baino ez ditu uzten egiten eta ez du mezan argazki zein bideo kamerarik erabiltzen uzten. Zer deritzozu?**

—Bakoitzak bere asmoak ditu. Gauza bat onuragarria izan daiteke, bestea ez horren ulergarria. Batetik, kameren kontua dela eta, jaunartzea erlijio ekintza denez gero, ez da beste gauzakaz kutsatu behar, folklore usainik ez zaio eman behar, bestela erlijiotasunez apur bat hustuko baita sakramentua. Alde horretatik, beraz, ondo deritzot. Baina nik bestera moldatzen dut kontua. Argazkilari bakarra egoten da mezan eta hark egiten die argazkia ume guztiei. Jantzia, garrantzitsue-na hiru urtetan zehar ondo prestatzea da. Ez diot hainbestelako garrantzirik ematen egun bateko jantziari.

—**Horrelako ekintzak, ezkontzak, bataioak... Noraino ez dira egun gertakari sozialak, erlijio ekintzak baino?**

—Arrisku handia dago. Fedea zenbat eta gehiago hoztu, orduan eta arazo gehiago sortuko ditu. Ezkontza dotore eta eliza polit batean egitea gorengo mailan jarritz gero, aldrebestu egiten dugu. Lehen mailan egon behar da ezkontzen direnak fededunak izatea. Horrela ez bada, sakramentua hustu egiten da. Gizarteko ekintza egin nahi baduzu, egizu gizartean, askatasun osoz; ez baliatu eliza gizarte gertaera bat gizarteko lez erabiltzeko. Txantxetan esan ohi dugu batzuetan, elizan ezkondu diren, baina eleizaz? Hor dago gakoa.

—**Fedea. Nahi nuke fedea eduki, agian lasaia eta zoriontsuago biziko nintzateke. Zer egin dezaket?**

—Fededunok kristauak gara, beraz, Kristo nor dan eta zer jokaera izan duen jakin beharko dugu. Bere aitarengan konfiantza

izan zuen. Fedea konfiantza da. Gizakiokin nola jokatu du? Eta gizakien artean makale-nekin? Jesusen jokamoldea bada nire eredua. Nire fedearen ardatza izango da bere jokabi-deak nire bihurtzea. Baina izaki sozialak gara eta Jesusi jarraitzeko, garrantzitsua izango da elizaren bitartekotasuna aintzat hartzea eta gure fedea haragitzeko, elizan sartzea eta sakramentu bizitza zein otoitz bizitza erama-

“Parrokian ezkondu eta federik ez dutenak, elizan ezkontzen dira, bai, baina, elizaz?”

tea. Isileko fededuna izan liteke, baina orduan ez du gizartekotasunik izango. Guk ez dugu gure fedea bakarka garatzen, taldean baizik. Elizan garatzen dugunak gero kon-prometitzen gaitu gure fedearikiko koheren-te izaten jokatzera familia, lagunarte edota lan arazoetan.

—**Elizak jarrera argia dauka hainbat gairekiko, antisorgailuekiko, homosexualitatea-rekiko... Baina gizartea ez doa bide beretik. Eliza eta gizartearen artean dibortzio modukoa al dago?**

—Bai, badago dibortzio bat, aitortu beharra dago. Elizak fedea eskatzen diona egin behar du, baina oso garrantzitsua da gizarte-arekin hartu-emona izatea. Gizarte horri eskaini behar dio bere mezua. Mezu hori esanguratsua izan dadin, gizartea maitatu behar du eta bertan murgilduta egon behar

“Jaunartze egun batez gazte batek zepilloko diru guztia ostu zigun”

du. Horrek ez du esan nahi gizarteko iritzi eta jokaerak guztiak ontzat eman behar dituenik. Aintzat har ditzake, baina ez ontzat eman. Aintzat hartu beharko ditu gizartearen gurak, ametsak, jarrerak eta iritziak, baina ebanjelioaren arabera ikusi beharko ditu. Baliteke aintzat hartu arren, ontzat ez emotea, gizakiei mesede ez diotelako egiten.

—**Horrek ez du eragingo eliza jendearen-gandik gero eta gehiago aldentzea?**

—Mezua argi esaten badu, ez. Elizak gizarte-a kondenatu besterik ez badu egiten, orde-a, orduan bai, aldenduko da. Egokitu beharko da baina, horrek ez du esan nahi danari baietz esan behar dionik. Gure kultu-ran gauza txarrak egon daitezke, adibidez, ez garela bakezaleak. Geure artean ez gara ondo

konpontzen edo alkar zapaltzen ari gara. Horiek jokabide txarrak dira eta elizak ezin ditu ontzat emon. Hori argi esateagatik ez dut uste eliza urrunduko danik, gizabidez ere ulertzen delako kaltegarriak direla. Baina elizak bertan behera uzten badu gizartea, bide txarretik dabilela-eta kondenatu beste-rik ez badu egiten, orduan ez dago biderik. —**Badaude beste gai batzuk ere, ez direnak argiak, homosexualitatea edo antisorgai-luak, aipatu ditut lehen ere, emakumeek eliza barruan duten funtzioa...**

—Bai, horretan aurrera genezake gauza askotan. Adibidez, heriotza edo abortoa ez duzu ontzat emongo, horiek beste maila batean daude. Baina zuk esan dituzunetan urratsak eman litezke. Elkarriketarako bide-ak zabal genitzake. Mailak daude gauza horietan. Baina nik diodana zera da, elizak

maitatu, eta ez kondenatu. Gure eginkizu-na ez da kondenatzea. Kondenatu behar duenak kondenatuko du, baina hori ez da elizaren eginkizuna, horrela ez baitago elka-rrizketarik munduarekin. Elizak badu arazo bat, gauza askotaz barre egiten duela. Abadeen adinaren batzbestekoa altua da, eta hori ere eragozpen bat da mundua mai-tatu eta hurko legez sentitzeko. Munduaren gorabeherak aldatzen doaz eta moldatzen joan behar dugu, baina zenbat eta zaharra-go izan, orduan eta itxiagoa zara mundu berria ulertu eta maitatzeko.

—**Azkenaldian jende asko apostatzen edo elizari uko egiten saiatzen dabil. Zer derit-zozu?**

—Gauza apur bat nabarmena deritzot eta propaganda moduko bat egin dela uste dut, edo talderen bat estandarte modura jartzen dabilela. Andra Marin, eskaera batzuk izan ditugu. Neskato eta mutiko zirela bataiatu zituzten eta esaten digute gurasoek ez zute-

la itxaron eurek erabaki arte eta baiatatuta egon nahi ez dutela. Baina bataiatuta badaude eta liburuetan horrela azaltzen da. Hori ezin dugu borratu. Hori bai, agi-ria eman ahal diegu elizbarrutian, nota-rioaren bitartez, fedea alde batera utzi dutela aintzat hartuz. Baina gauza nabar-men lez ikusten da. Federik ez baduzu, ba

—Bai, krisi handia dago. Molde barriak sortu beharko dira. Lehengo moldera ez ditugu egingo apaizak. Elizan, apaizak egin behar ez dituen gauzatarako, laikoak ere sar litezke, adibidez. Elizari hortik letorkioke arnas berria, ez apaizengandik soilik. Eliza ez da beretzako bizi, gizartea-ren zerbitzura baizik. Egiten ditugun zer-

“Gizartearen erronkak bereganatuko dituen eliza gura dut; Kristoren eliza horrelakoa dela uste dut”

ez duzu, baina zer irabazten da elizara joa-nez propaganda egitera. Ez dut lar ondo ulertzen agiriak apurtzea eta hori. Orain, bakoitzak askatasunez erabaki dezake fededun izan edo ez.

—**Apaizak eta lekaimeak adininekoak. Krisia sortuko da elizan bere jarduna au-rrera eramateko?**

bitzuak fedearen bultzadaz egiten ditugu, jendeagaz egon behar dugu, maitatu eta zerbitzatu. Hori egiten dugun heinean, aintzat hartuko gaituzte. Gizartean mur-gilduko den eliza bat gura dut, argibideak ematen dizkiona eta handik erronkak be-reganatzen dituen. Kristoren eliza ho-rrelakoa dela uste dut. o

Nahi duzun lekura iristeko arazorik bai?



*Etxebizitzetarako igogailuak
Eskilera-igogailuak
Plataformak*

Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz



Europako amesgaiztoa

Aspaldian Sevillan bizi den arren, Madrilen jaio zen Sergio Caro argazkilaria 1977an. Sari garrantzitsu ugari eskuratu ditu, orrialde honetan ikus dezakezuen argazkiagatik, hain zuzen ere, Ortega y Gasset saria eman zioten. Europara heltzeko ahaleginetan, Saharako Hegoaldeko “paperik gabeko” herritarren erromesaldi nekagarria eta Marokon bizi duten egoera penagarria islatzen ditu egileak lan honetan. Poliziak preso hartuak, jipoituak, sarritan bortxatuak, eta gero basamortuaren erdian halabeharraren esku utziak.
Europako ametsa, amesgaiztoa.

Argazkiak: **Sergio Caro**









I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3
Telletxe 1

T: 430 23 45
T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINI-

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

FANT 2008

Hilaren 8tik 16ra zine fantastikoko film ugari eta bestelako **ekimenak Bilbon**



Aurtengo jaialdia iragartzen duen kartelaren argazkia

Ezezagunarekiko beldurra, antzinako eta galdutako zibilizazioekiko mesfidantza eta izua, beste lege batek gidatzen zituelako, gure egiteko giza, etika eta kultur moduek balio ez digutelako... ezinegona islatzen du aurtengo FANT jaialdiko karteleko neska-
ren irudiak. Mila beldur motaren artean beste bat baino ez den ikara izan liteke XIV. Bilboko Zine Fantastikoaren jaialdiko gai nagusia. Hilaren 8tik 16ra film fantastikoa-
kaz eta horri lotutako bestelako ekimenak-
kaz beteko dira Bilboko bazterrak: Capitol zinemak, Barrainkua zentroa, Azkena, Ambigu (San Vicente, 5), Kafe Antzokia...

Jaialdiko sail ofizialaren barruan AEB-
etako, Hego Koreako, Espainiako, Dani-
markako eta Frantziako hamar bat film
lehiatuko dira, ondorengoak, hain zuzen:
La Niebla, *3 Dias*, *Diario de los muertos*, *El espejo*, *I'm a cyborg but that's OK*, *Mulberry street*, *Offscreen*, *Peur(s) du noir*, *Whistcutters: a love story*.

Genero honetako iraganeko maisuei es-
kainitako atalak aurten Val Lewton (Yalta,
1904-1951) gidoilariari eta ekoizleari egin-
go dio gorazarre eta haren filmak eta hari

buruzkoak emango dituzte. Gainera, aur-
tengo Fantrobia saria Fernando Velazquez
getxoztar musikariak (adb. *El Orfanato*-ko
soinu banda berea da) jasoko du. Fant-
&Rock atalean *Global Metal* (Sam Dum
& Scot Mefadyen) filma emango dute;
Fant Erreskatean atalak *La bruja vampiro*
eta *Suspense* filmak berreskuratuko ditu eta
Zinemara Pozoiak atalean *La Hora del Lobo*,
Lynch eta *De Urge ar...* lanak pantai-
laratuko dituzte. Bestalde, ezin ahaztu Fant

**«Aurtengo berrikuntzen
artean daude: kontzertuak,
menu bereziak,
bazkalosteko berbaldiak...»**

Lab, Haurrentzako FANT, Nontzeberri
gaua eta abarreko emanaldiak. Aurten, bes-
telako ekintzak ere antolatu dituzte, adibi-
dez: Heavy Trash eta Gore Gore Girls-en
kontzertuak (hilak 6, 22:00; Kafe Antzo-
kia); Santi Ibarretxe saxofoi jolearen entzu-
naldia (hilak 13, 22:00: Azkena) Fant
Foodeko menu bereziak (Ambigu) eta baz-
kalosteko berbaldiak, etab. o

Informazio gehiago: www.fantbilbao.net

20 urteotako kantu aukeratuak

Mikel Markezen bilduma berriko kantu zaharrak hilaren 16an Getxon entzungai



Mikel Markez bere gazte denborako argazki batean. Informazio gehiago: www.mikelmарkez.com

Hastapenei begira ipini, aspaldiko kan-
tuak atontzeko, hobetzeko eta berregiteko
nahia isiltzeko ezina sentitu eta aurten
hasiera hartatik 20 urte joango direla kon-
turatu... Hori guztia pasatu ei zitzaion bu-
rutik Mikel Markezi eta bere ibilbideko
kanturik ezagunetariakoak eta gustukoena
aukeratuta bilduma bat kaleratzea erabaki
du. *Zure begiek. Bilduma 1988-2008* dis-
koa plazaratu du oraintsu Errenteriakoak
eta bertan gutako hamaika nostalgikok
gaztetan mila aldiz abestutako kantuak
aurkituko ditugu, esaterako, bildumari
izena ematen dion nahi eta ezinen maita-

sun kantua. 20 urteotan argitaratutako za-
pi diskoetatik egin behar izan du aukerake-
ta lana, jendearen gogokoenak eta berak
estimuan dituenak hartu eta azkenean 14
abestiko zerrenda osatu du, berbarako: “Zu-
re begiek”, “Zertarako mugak jarri”, “Gi-
zartearen eraikuntza”, “Imajinatzen zaitut”
etab. daude diskoan.

Horrez gain, disko berri baterako kan-
tuak ere badituela jakinarazi du Markezek,
baina lan berrirako ez du datarik iragarri.
Momentuz, bilduma lan honen aurkezpen
biran dabil, eta hilaren 16an Getxo Antzo-
kian emango du kontzertua (20:00). o

diskoak

América
Reincidentes
Realidad Musical

Reincidentes talde
ezagunak diska berria
kaleratu berri du: *América*.
Bertan Latinoamerikako
abesti herrikoien bertsioak
egiten ditu: Pablo Milanes,
Silvio Rodríguez, Tijuana
no, Attaque 77, Guillotina
bezalako taldeen bertsioak
ditugu. Diskoa berak eta
beste zenbait taldek
sortutako Realidad Musical
zigilu berriagaz kaleratu du.

I love your glasses
Russian Red
Eureka Records

Lourdes Hernández eta
Briant Hunt dira Russian
Red (ezpain margo marka
baten kolorearen izena).
Lourdes Fernández
gaztetatik hasi zen gitarra
jotzen eta abestiak
konposatzen. Brian Hunt
berriz, Half Foot Outside
taldeko kide dugu. Folk
musika gogoko dutenentzat
altxor modukoa da bikote
honen diska.

Till death do us part
Deicide
Earache Records

Kalean da jada Deicideren
disko berria: *Till death do us
part*. Musika astuna eta oihu
guturalak uztartzen dituen
talde hau death metal musika
estiloaren gurasotzat har
ditzakegu, Napalm Death eta
beste zenbait taldegaz
batera. Glen Benton abeslari
eta baxu jotzaileak, Eric
Hoffman eta Brian Hoffman
gitarra jotzaileek eta Steve
Asheimek osatzen dute.

[musika]

diskoa >

Ruper Ordorika



Bere bigarren
zuzeneko diskoa
plazaratu du Ruper
Ordorikak, *Hamar
t'erdietan-10:30 p.m.*
2006ko urriaren 26
eta 27an gaueko
10:30ean grabatuko

lan honetarako bere ibilbideko kanturik
ezagunetariakoak aukeratu ditu Ruperrek,
adb.: *Egin kontu*; *Martin Larralde*; *Etzanda*;
Herdolarena; *Asmatzekorik ez*; *Agurraren
lezioa*; *Zaindu maite duzun hori*; *la egun-
sentia da*; *Lagun erratuena*; *Ene herrian*;
Zenbait bertso xeblebre. Dvd-an horietako
seiren zuzeneko emanaldiak sartu dituzte.
Ruperregaz jardungo duten musikariak
dira: Alberto de la Casa (baxua), Nando
de la Casa (bateria), Arkaitz Miner
(mandolina, biolina eta gitarra akustikoa)
Dani Perez (gitarra elektrikoak), David Soler
(pedal steel, samplerrak, gitarrak).

Informazio gehiago:
www.ruperordorika.com

Hamabigarrena > Oskorri

Orain dela pare bat aste aurkeztu zuten
Oskorrikoek The Pub Ibiltaria disko
bildumaren XII. cd bikoitza. Ohi lege-
z, aurreko urteko Santomasetan (Santo
Tomas egunean) Bilbora bertaraturakoen
ahotsen laguntzagaz grabatutako 17
abestiko lana da (bigarren cd-a
instrumentala). Egun hartan sortutako
oztopoak gainditu ostean (argindarra joan
zen eta grabazioan ez ziren datu denak
gorde), azkenean lortu dute grabazioa
berreskuratzea eta tradioa ez etetea.

Informazio gehiago:
www.thepubibiltaria.com



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00




BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Estatubatuarren hautagai AEBetako itzulpen sariketa ezagun baterako hautagai izan da **Bitartean heldu eskutik**

Dozena erdi urte badira Kirmen Uribek (Ondarroa, 1970) bere lehenengo poema liburua, *Bitartean heldu eskutik* (Susa, 2001), plazaratu zuenetik. Patuaren bideek New York aldera eroan zuten eta bertan bere bultzatzaile eta lagun bihurtuko zen Elizabeth Macklin idazle eta itzultzailea ezagutu zuen Uribek. Eta bidean aurrera, idazle estatubatuarrek ondarroarraren lan hura itzultzeko beka bat lortu zuen. Iazko urte hasieran kaleratu zen *Meanwhile take my hand* (Graywolf, 2007) itzulpena eta nahiko ondo hartu zuen kritikak. Itzulpenari keinu egin zioten, besteak beste, Los Angeles Times, Booklist eta The Harvard Review egunkariak edota aldizkariak.

«**Kirmen Uriberen lehen poema lanaren ingelesezko itzulpenak bidea egin du AEBetan**»

Hala, urtero AEBetako PEN Club erakundeak antolatzen duen aurtengo itzulpen sariketarako azken hautagaien artean aukeratu dute Kirmen Uribek idatzitako eta Elizabeth Macklinek itzultitako liburua. AEBetako PEN Clubaren sariketaren sail honek ingelesera itzultitako eta AEBetan argitaratutako poema liburu onenak nabarmentzeko helburua dauka, eta bertarako hautagai izatea ez da ez ahuntzaren gauerdia.



Kirmen Uribe (Ondarroa, 1970)

ko ezutla. Are gehiago, *zabarregia, txikiegia agian* den hizkuntza batean idatzitako lan batek handiegia, berriegia datekeen mundu batean leku egitea pauso nabarmena da. Sariketaren irabazlea eta bi finalisten izenak UKren zenbaki hau inprentara bidean doala jakinaraziko dituzte, halere, Kirmen Uribe zoriontzeko aukera ez dugu galdu gura izan, merezi du eta!


Bestalde, eta AEB utzi baino lehen, Kevin Prufer eta Wayne Millar kritikoei Europako poeta berrien antologia (*New European Poets*, Graywolf, 2008) aipatu nahiko genuke, izan ere, XX. eta XXI. mendeetako 270 poeta europarren poemak bildu dituzte liburura, eta horien artean, Kirmen Uriberen 3 poema eta Bernardo Atxagaren bi sartu dituzte. ○

liburuak



Zulo bat uretan
Inigo Aranbarri
Susa

City hoteleko gelan Hans Langsdorff-ek bi gutun idatzi zituen: bata, emazte Ruthi eta alaba Ingridi; bestea, Agintaritza Gorenari. Ordu batzuk lehenago, hilabetetan menpean izan zituen gizon guztiak agurtu zituen. Bi azalak ohe ondoko mahai gainean utzi eta kanporantz behatu zuen.



Manifestu nazionalista...
C. Ulises Moulines
Txalaparta

Moulines filosofoaren ustez, gar egun, XIX. mendearen erdialdean bezala, mamu bat dabil Europako kantzelergoetan barrena. Baina gure XXI. mende honetan, mamua ez da Marxek eta Engelsek aipatzen zuten komunismoa, nazionalismoa baizik.

[kirola]

Elkar ezagutzeko, gozatzeko Kirol Topaketa andana egin dituzte dagoeneko Lehen Hezkuntzako ume getxoztarrek



Ohikoak ez diren kirolak bultzatzea ere bada egitasmo honen helburuetako bat

Getxoko Udal Kirol Planaren barruko zutabeetako bat da eskola-kirola sustatzea, horren helburu nagusiak umeek kirol mota asko ezagutzeko eta lehiakortasunik gabeko kirola bultzatzea dira. Lehen Hezkuntzako (1.-4. mailak bitartean) umei zuzendutako eskolaz kanpoko kirol mota askoren eskaintza Getxo Kirolak erakundeak kudeatzen du udalerriko ikastetxeetako Guraso elkartearen eta kirol taldeen laguntzagaz. Hala, umeek hilabetearen zehar kirol jakin baten inguruko eskolak eta ezagutza jaso zein ariketan jarduten dute, eta hil amaieran ume denak batu eta kirol horren gainera Topaketak izeneko ekimenagaz gozatzeko dute. Irailean hasi ziren jarduerak honegaz eta dagoeneko eskubalo, futbol, saskibalo, boleibol, herri kirol, hockey eta errugbi topaketak egin dituzte. Horrez gainera, "ohiko" kirolak ez direnetan jarduteko topaketak baino txangoak egiten dituzte eta horien artean daborduko txirrindularitza, patinajea, aerobika, eskia, kirol egokitua egin eta mendira joan dira haurrak.

Esan legez, kirol bakoitzaren inguruko

topaketak, eskolak edota txangoak herriko kirol taldeek eskaintzen dituzte. Ekimen honen bitartez, hurrek ohikoak ez diren beste kirol batzuk ezagutzeko aukera daukate, kirol taldeek euren kirola ezagutarazteko beta dute eta zergatik ez, etorkizunean euren klubetarako kirolariak ere ezagutzeko eta hurbiltzeko aukera ere ematen die ekimenak.

«Topaketa bakoitzean batez beste 150 ume hartzen du parte»

Getxo Kirolak-etik adierazi dutenez, topaketa edota txango bakoitzean 150 bat ume hartzen du parte eta ikasturte hasieratik hona 500 ume baino gehiago ibili dira Eskola Kirola egitasmo honetan.

Hurrengo txangoa arraunaren gainera izango da (hilak 10), gerora antolatuko dituzte atletismoaren topaketa (maiatzak 24) eta surfaren txangoa (maiatzak 31). Ikasturteari amaiera emateko partehartzaile guztiak azken jai batean batuko dira, jaia, aisialdia eta kirola lotuko dituen ekimenen (ekainak 22). ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Gentzane Agirre > zinegilea

“Profesional izateko bidean dabilen pertsona bezala ikusten dut nire burua”



Argazkian, Gentzane Agirre

Topaguneak (Euskal Herriko euskara elkarten federazioa) antolatutako Euskarazko Film Laburren Zirkuitua maiatzaren 15ean amaituko da. Uribe Kostako eskualdean Erandion baino ez dugu izango zirkuituko filmak ikusteko aukera, maiatzaren 6an, Josu Murueta Kultur Etxean. Aurten Topaguneak egile eta formatu berrien aldeko apustua egin du, horren adibide Gentzane Agirre gaztea dugu. Getxon bizi izandako lekeitiar honek aitortu digunez, filmeak egiten bizitzea oso gatza da.

—Zelan ikusten duzu zeure burua Euskarazko Film Laburren Zirkuituan?
—Hasiberria, oraindik profesional izateko bidean dabilen pertsona. Izatez, gainera, ni amateur mailan aurkeztu ditut neure beharrak.
—*Unrest* eta *All about eves* aurkeztu dituzu...
—*All about eves* laburrean bost emakumeren bidez zinemaren historiako bost garai aurkeztu ditut: zinema mutua, *westerna*, zinema klasikoa, joera berriak (eta euren artean surrealismoa aukeratu dut) eta zinema garaikidea. *Unrest* laburra mutua ere bada eta emaku-

mezko bat da protagonista. Honek bere buruaz beste egiten du eta gero hilik ikusten du bere burua. Baina bat-batean altxatzen da. Orduan, behin eta berriz bere buruaz beste egiten du eta ez du ulertzen zer gertatzen ari zaion. Egoera ulertezin hori azaltzen saiatu naiz.
—Zelako kritika jaso dute labur horiek?
—*All about eves* lanagaz Lekeitioko Zinemaldian sormenezko saria irabazi nuen. Baina egia esan, zentzu horretan eta denbora faltagatik ez naiz asko mugitu eta toki gutxi batzuetan baino

ez ditut aurkeztu lanok. Hala ere, orain mugitzen hasteko asmoa daukat. Lan hauek ikusi dituen jendeari, *All about eves* gustatzen zaio gehienbat. Baina *Unrest*-en erabili izan ditudan irudiak ere asko gustatu zaizkie: argilun handiak egin ditut, hau da, argi eta itzal handiak konbinatzen dira. Bertan sartu dudana musikak ere iritzi ona jaso du.
—Zergatik jarri dituzu laburren izenak ingelesez?

«Unrest-en erabili ditudan argilun handiak asko gustatzen zaizkio jendeari»

—New Yorkeko Zine Eskola Bilbon hasi zen eskolak ematen lehenengo aldiz. Nik bertan zuzendaritza ikastaro bat egin nuen eta labur bi hauek egin nituen; horregatik jarri nituen izen biak eta kredituak ingelesez, amerikarrek uler zezaten. Ondoren, Euskarazko Film Laburren Zirkuituan aurkeztu nituen eta horretarako kredituak euskaraz ipintzeko eskatu zidaten, baina izenburua ingelesez izan zitekeela esan zidaten. Berez mutuak dira biak eta euskal zinegilea naizenez, onartu ninduten; euskaldunok ere isilik egoteko eskubidea daukagu.

—Zaila al da filmen munduan hastea?
—Honekin baino ez bizimodua aurrera atera gura baduzu, bai. Hasten zarenean gauza asko musutruk egin behar izaten dira. Kobratzen hasten zarenean ere, behetik hasten zarenez gutxi irabazten da. Familian zinema munduan dabilen baten bat badaukazu ateak errazago zabaltzen dira. Horrelakorik ezean, beste gauza batzuk bilatu behar dituzu. Ni telebis-tagaz tartekatzen nabil lan hau, errazagoak dira gauzak horrela. Telebista lan finkoa da, pelikula batean, gehien jota, bi hilabete baino ez dira lanean ematen eta gero auskalo zer egingo duzun. Beraz, gatza da zure bizitza aurrera eroatea. ◊

Ipar Uribeko bertsolari txapelketako finala 2008

maiatzaren 17an 18:00etan

Areetako (Getxo) Andres Isasi musika eskolan

www.eskualdeka.biz

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito).

☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Liburutegian liburu bat aukeratu, irakurritz gozatu eta itzultitakoan beste liburu bat erosi eta gozatzen jarraitzeko % 25eko deskontua lortuko duzu.....

**IRAKURRI,
GOZATU
ETA
OPARITU**

Apirilaren 23tik uztailaren 26ra

www.topagunea.org/irakurri

ANTOLATZAILEA BABESLEAK

TOPAGunea
LIBURU GAZTATZEN ERAKUNDA

BFA DFB
Biblioteka Foru Mendiak
Bibliotekaren Foru Mendiak

Askezia Foru Mendiak
Bibliotekaren Foru Mendiak

Askotilla: MAXIKATZEN, Aizsua: NIMA, Aizsua: KARRIKALUZE, Bazaia: EUSKARABILA, Bergara: JARDUN, Deba: ZUHATZA, Derango: BERBARO, Erandio: BERBOTS, Ernaia: EUSKAL BIRUSA, Etxe-Atxarri: BIERRIK, Igome: GANDRAZ, Iruñea: AIZPEA, Iruñea: GURIEÑ BAI, Mahatserría (Bilbo): ASAPALA, Markina-Xemein: UHAGON, Santarri: BAI ESAN, Zaleibar: EIRU

La Roca del Fraile

Etengabe karta berrituz



Erandioko La Roca del Fraile jatetxeko lantaldea

Laugarren urteurrena ospatu zuten La Roca del Fraileko lagunek apirilaren 29an. Jose Mari Agirre eta Luis Angel Arrondo bikoteak zabaldu zuen 2004an, Loiuko Leku-Ona jatetxean 15 urtez ibili eta gero: “25 urte daramatzagu elkarrekin; senar-emazteak bezalakoak gara”. Guztira 15 gizon-emakumek osatzen dute lan taldea: “Taldeko lanari garrantzi handia ematen diogu. Beharreen gustura egotea ezinbestekoa da bezeroak pozik edukitzeko. Eurak ere gure taldearen parte dira”. Bezeroen iritzia eta ekarpenak jasotzeko ekimen bi jarri dituzte martxan. Alde batetik, iradokizunen buzoia daukate jatetxean bertan: “Proposamenak zuzenean jasotzen ditugu; eskergarriak dira”. Bestetik, www.larocadelfraile.com bloga sortu dute. Honetan, menuaz gain, izena-

ren jatorriari eta antolatzen dituzten ekime-nei buruzko informazioa eta iritzia uzteko txokoa dago: “Gune bizia sortzea zen gure helburua eta, momentuz, lortu dugu”. Menu mota bi eskaintzen dituzte: eguneroko arrunta eta “La Roca” menua, hile-ro aldatzen dutena eta plater gehiago ditue-na aukeran: “Etengabe berritzen saiatzen gara. Garrantzitsua da bezeroa ustekabean harrapatzea”. Gozamina da La Roca del Fraileko lagunen premisa nagusia eta, horretarako, primerako lehengai eta zerbitzu paregabea ematen saiatzen dira. Joan den urtean, Bizkaiko tabernari txapelketa iraba-zi zuen Leire Rementeria langileak. o

Axpe Erriberako industrialdea, ERANDIO
Tel.: 94 431 41 41

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaitan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
jatetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asador Goieztzi

• Zabalik egunero
• Eguneroko menuak
• Enpresa menuak
• Menuak normberaren gustura
• Egunero karta berezia
• Gazez dastatzeko menua
astelehenetik- ostegunera
• Jaun hartze bazkariak
zure gustura prestatzen ditugu.
Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROLO PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ez zara inoiz isiltzen... Ez al zara konturatzen ingurukoak aspertzen dituzula? Neka-neka eginda daude zure berba jarria entzuteaz. Atsedena hartu, existua irentsi eta besteak entzuten ikasi, edo behintzat saiatu!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zer egingo duzu orain langabezia zaudela? Amatsuren altzora itzuliko zara? Buztana hanka artean daukazula sartuko zara etxean, baina lasai egon, denek ulertuko dute eta gurasoak pozik egongo dira zu berriz ikustez!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Lana bilatzea ezinezkoa egiten zaizu. Zenbat denbora daramazu horretan? Hilabete bi, sei, urte bat? Ez amore eman, gauza horiek gatz daude egunotan. Bitartean, zure denbora libreaki etekina atera, eskertuko duzu.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Telefonoz berba larregi egiten duzu. Ez al zara konturatzen hilabete bukaeran izugarrizko dirutza ordaindu beharko duzula? Zeure burua kontrolatu, bestela ez duzu oinarritzkoak diren gauzak erosteko sosik izango.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Zertan ibiltzen zara gauean hain berandu arte? Goizean bikotea ibiltzen da izareti tiraka zu itzartu nahian. Zentzu apur bategaz jokatu eta ohera arinago joan, hurrengo egunari etekin handiagoa aterako diozu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
“Rock Star” baten moduan sentitzen zara: ule luzea, praka estuak, betaurreko ilunak... Zure idoloak gurtzen ematen duzu eguna. Kantatzea bakarrik falta zaizu, baina, egia esateko, ez zara bertute horregaz jaio.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lanez gainezka zabilta azkenaldi honetan. Nagusiari zerbait esan beharko diozu, ezin duzu-eta erantzukizun osoa zure gain hartu. Ez da ona osasunerako ezta bururako ere. Hainbeste behar egiteak ondorio latzak dakartza.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Ez duzu jateko koipetsua gogoko, baina olio pilo bat erabiltzen duen jatetxe horretara joan besterik ez duzu. Zerbait jan behar duzu eta etxean ez daukazu janaria prestatzeko astirik. Sentitzen dut!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Fashionvictim halakoa! Gauza guztien modelo berriena eduki behar duzu beti eta originalena izan. Berdin zaizu dirua, askorik ez duzun arren. Zelan moldatzen zara? Beti lortzen duzu gura duzun guztia!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Kotxea erosi gura duzu? Begiratu oso ondo nori emango diozun dirua, sorpresaren bat izan dezakezu eta... Dirutza da eta merezi du tentuz ibiltzea, badaezpada ere, ala euroak sobera daukazazu?

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Izugarri politik dira Euskal Herriko basoak eta oihanak garai honetan: Irati, Urbasa, Gorbeia... Zure bisita merezi duten lekuak badaude. Ez zara damutuko, udaberriko koloreen ez tandaren lekuko izatea ez da edonolako gauza.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zenbat bider esan dizu amak arropak plantxatu barik ez irtereko? Zelako itxurak! Zertarako balio du halako gauza karuak erosteak gero edozein modutan erabiliko badituzu? Estiloa apur bat jagon mesedez...

mungia
oKINdegia



Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Lapurdiko kostakoa. 2. Bizk., hari mota. Ipar Euskal Herrian, lau. 3. Sartu aditzaren oina. Israelgo erregea, Jezabelen senarra. Kontsonantea. 4. Kide egin. Ate, hitz elkartetan. 5. Pirineoetako gailur gorena. Hertsia. 6. Izkiriatailea. Idi, hitz elkartetan. 7. Musika nota. Itzez lotu. 8. Espainiarren EHNA. Lehena eta azkena. Atzizkia. 9. Bizk., bike. Abisuak. 10. Ahuntzaren ar. Hari, nuke.

Goitik behera

1. Adinaren poderioz hondatua. 2. Hemendik aurrera. 3. Laborarien tresna. Iodoaren ikurra. Bokala. 4. Euskal fonema. 48 ordu barua. (Zah.) Zakur. 5. Musulman xiiten erlijio-buruzagi nagusia. 6. Kontsonantea. (Errep.) Txori mota. Zeharean jarri. 7. Gabarra txikia. Joan den urtean. Nori atzizkia. 8. Marokoko hiriburua. Ibar. 9. Rutenioaren ikurra. Hegazti umeak. 10. Ipar., alaitu. Suari dario.

Soluzioak

E	K	O	I	N	R	E	K	A
K	R	A	V	H	O	I	U	
O	R	Z	V	I	N	D		
U	T	V	Z	T	I	V	T	
T	I	V	E	T	Z	V	D	I
I	X	T	I	O	E	N	V	
V	T	V	U	T	E	D	I	K
R	B	V	K	V	R	V	S	
R	U	V	T	I	Z	V	R	V
V	R	V	T	V	T	S	O	K

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Algortar peto petoa
- Txokolatea asko gustatzen omen zaio
- Idazlea ere bada

> Aurrekoaren erantzuna: Arnaldo Otegi
> Irabazlea: **Eguzkiñe Aurrekoetxea***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



ERANDIO, OROIMERAKO IRUDIAK LIBURUTIK HARTUTAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Erandioko udal gestora, 1983

Erandioren indarrezko anexioa eta ondorengo desanexioaren prozesua ulertzeko, hona hemen datarik esanguratsuenak. 1940: Lutxanako zubian, Jose M^a de Oriol y Urquijo orduko Bilboko alkateak eta Erandiokoak, Paskazio Etxarri, biak txapel gorritz jantzita, elkar besarkatu eta Erandio Bilboren agindupean lotu zen. 1982: Desanexioaren aldeko gestora bat sortu zen. 1982-12-31: Carlos Garaikoetxea Lehendakariak desanexioa legeztatzen zuen agiria sinatu zuen, Bizkaiko Batzar Nagusia honen alde azaldu eta gero. 1983-1-6: Ordu erdiko bileran udal gestora eratzen da eta jarraian Irailaren 23a plazan, goian duzuen argazkia ateratzen da. Egun horretan hasi zen desanexioa. 1983-5-8: Udal hauteskundeak Euskal Erkidegoan. 1983-5-23: Desanexioaren ondorengo lehenengo udalbatza osatu zen. Kide gehienak (alkatea bera ere bai) gestoran ibilitakoak ziren.

Laster, beraz, desanexioaren 25. urteurrena ospatuko dute erandioztarrek. Zorionak ba! o

Argazkian: Eduardo Aurrekoetxea, Jose M^a Balboa (GB), Isaias Valdivielso, Iñaki Barcena, Jon Lekunberri, Pedro Luis Abecia (GB), Gotzon Fano (alkatea), Jose Luis Aurrekoetxea, Avelina Agirre, Jose Miguel Barrutia (GB), Juan Manuel Yarritu, Juan Dañoibeitia (GB), Alberto Caba, Jon Bereziartua (idazkaria), Roberto Mitxelena, Alberto Etxabari

Gestorako gainerako kideak baina argazkian azaltzen ez direnak: Roberto Castañeira, Jon Sakona, Fernando Arce, Juan Latorre, Jon Mikel Urrutikoetxea, Jose Angel Campano.

JAVIER CORCUERA > zinegilea

“Nostalgiko hutsa naiz, beti nabil iragana gogoratzen”

Testua: **Jokin Aspuru**



Javier Corcuera Bagdad-en egin zuen filmaketan

Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Nostalgiko hutsa naiz, beti nabil iragana gogoratzen.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Jose Luis Cuerdaren *El bosque animado* pelikulako Fendetestas bidelapurrena gustura egingo nuke.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Asko asko esan nitzakeen, baina bat aukeratzekotan... Evaristo, La Polla Records taldeko abeslaria.

Ohitura txarren bat?

Lagunekin egunero kalera ateratzea, ona dela uste dut.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Chuo-ra itzuliko nintzateke. Venezuelako herrixka paradisiakoa da, han badauzkat lagun bi ametszko hondartza batean txiringito gogoangarria daukatenak.

Zein da zure ametsetakoa bat?

Orain halabeharrez Algeriako errefuxiatu kanpamenduetan egin behar dugun Saharako Zinemaldia, Sahara aske batean egin ahal izatea.

Zer edo nor ez zenuke sekula barkatu?

Irak-eko gerra babestu zutenak.

Irakurri duzun azken liburua?

Especijos, Eduardo Gleanorena. Orain dela gutxi egileak berak bidali dit.

Ikusi duzun azken filma?

Buda explotó por verguenza, Hana Mkhmalbaf, 20 urteko Irango neska batek talento handiz filmatu duena.

Zure txoko kuttuna?

Juanito taberna, Limako Barranco auzoan dagoen txoko ederra, etxean sentitzen naiz han.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Algortako Portu Zaharreko jaietara itzuli barik. ○

LABURREAN— Perun jaio zen baina orain dela hogeitaz urte Madril bizi da. Oso zinemagile prestigiotsua da eta maki-na bat dokumental egin ditu, beti ikuspegi kritiko handia azalduz. Besteak beste berak zuzendutakoak dira, *La espalda del mundo* (Kritika Saria Donostiako Zinemaldian, 2000), *Invierno en Bagdad* (Pelikularik Onena Malagan, 2005) edota *Invisibles* (Goya Saria, 2007). Oraintsu Tindoufeko errefuxiatuen kanpamenduetan egin berri den Sahara Zinemaldiko zuzendaria ere bada.

“Getxo, akordaten naz”

Herriko euskaldun zaharren testigantzak, oroitzapenak eta euskara jasotzen dituen dokumentalaren...

...kopia bat eskuratu...

...nahi baduzu
“*uk@aldizkaria.biz*”
helbidera mail bat
idatzi.

15 ale dauzkagu
UK-ko harpidedunen
artean banatzeko

136. zenbakiko irabazleak

Nerea Cuelar
Koldo Salazar
Alain Pitarque
Josu Larrañaga
Liber Imaz
Eguzkiñe Aurrekoetxea
Idoia Larrea
Mixel Sarasketa
Gontzal Gutierrez



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37

26+ 26+ **ESKURATU**
SARRERA
OROTARA KO
KUTXAZAIN ETAN
DESKONTUA
REKIN

[illegible]**bbk=**